

CRAIG DALZELL: «Balizko Eskozia independente batek bere moneta propioa eratu beharko luke» > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Hodeietan kaleak etorbide, inork ez du eragotziko euria! MIKEL ZUBIMENDI > 11

2017ko urtarrilaren 14a | XI. urtea • 501. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ZERBITZUAK, DENON ESKURA?

EUSKAL HERRIKO 685 UDALERRIETAN OINARRIZKO ZERBITZUETARA ZEIN DISTANTZIA DAGOEN AZTERTU, ETA ESKUALDEEN ARTEKO DESOREKAK AGERTU DITU GAINDEGIAK. DATUEI AURPEGIAK JARRI DIZKIEGU. > 12 Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS



Craig Dalzell: «Eskozia independente batek bere moneta propioa eratzeko apustua egin beharko luke» 04

Nigeria bat dator Kongo ibaiaren arroko ura Txad lakura eramateko proiektuarekin 08

Zerbitzuen eskuragarritasunean desoreka euskal lurraldeetan 12

Bilboko garraio publikoko zailtasunak, agerian 17

E.lkarrizketa: Juanjo Arregi 22

Infraganti: Maider Oleaga 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:**

Esandakoaz bi hitz

10 **Oier Gorosabel:** Ariketa

terapeutikoa

11 **Mikel Zubimendi:** Hodeietan

kaleak etorbide, inork ez du eragotziko euria!

20 **Gaizka Amondarain:**

Bizitzeko toki bat

21 **Garazi Goia:** Liburuak,

liburuak, liburuak

26 **Unai Iturriaga**

27 **Joxean Agirre:** Agenda

27 **Saioa Iraola:** Konpromiso politikoaz

30 **Iratxe Esnaola:** Facebook, Google, Amazon... finantza erakunde



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Esandakoaz bi hitz

Hilabetez hilabete “Datorrena” zutabe honen bidez nazioartean eta bereziki Europan emango diren joera politiko nagusiak aztertzen saiatu naiz, eta aitortu beharra daukat joan berri zaigun 2016 honetan ez naizela oso fin ibili. Kolonbian bake akordioa berresteko erreferendumean ezetza irabazteak sorpresaz harrapatu ninduen, nahiz eta gaia gertutik jarraitzen duten hainbat lagunek arrisku horretaz aurrez ohartarazi. Edozein kasutan, 2017 urte klabea izango da Kolonbiako bake prozesuan, 2018an Kolonbian egin beharreko presidentetzarako hauteskundeen aurretik prozesua atzeraezina bilakatuko duten pausoak eman beharko direlako. Nire ustez, bi klabe nagusi daude norabide horretan. Lehen, FARC eta Kolonbiako Gobernuak adosturiko bake akordioaren inplementazioan aurrerapauso garrantzitsuak ematea da, eta, bigarrena, ELNren eta Gobernuaren arteko prozesuak aurrera egitea. Prozesuan inplikaturiko aktoreek nik baino askoz hobeto ezagutzen dituzte urgentzia eta errealitate horiek, eta pentsatzekoa da hartu beharreko erabakiak hartuko dituztela.

Brexitaren inguruan idazteko ere behin baino gehiagotan erabili dut zutabe hau. Bada, kasu honetan ere, nik uste nuenaren kontra, Brexitaren aldekoek irabazi egin zuten. Egia da Eskozian eta Irlandako iparraldean ezetzak irabazi zuela, baina baita Ingalaterran eta Galesen Brexitaren alde bozkatu zuen gehiengoak Erresuma Batu osoa Brexitera daramala ere. Erabakiak lurrikara politikoa piztu du Europan eta Erresuma Batuan, eta ekarriko dituen ondorioak ikusteke daude oraindik. Irlandako iparraldeak eta Eskoziak bide eta estrategia diferenteak hartu dituzte erabakiaren ondorengo lehen hilabeteotan. Sinn Feinek Ipar Irlandako estatus berezia eskatu du Europar Batasunaren baitan, batetik Brexitak Ostiral Santuko Akordioetan eragin zuzena duelako, bestetik Irlandako iparraldea Europar Batasunetik kanpo geratzea biztanleriaren gehiengoak erabaki duena ez errespetatzea litzatekeelako, eta, azkenik, Brexitak Irlandaren batasunaren norabidean eragin oso negatiboa izan dezakeelako, praktikan uhartearen hegoaldearen eta iparraldearen artean Europar Batasun-

naren kanpo muga ezarriko litzatekeelako, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Horri buelta emanez, Europar Batasunarekiko atxikimendua uhartearen batasunaren aldeko gasolina politikoa ere bilaka daiteke. Irlandako iparraldean, Martin McGuinnessen dimisioaren ondorioz egingo diren hauteskundeen emaitzek markatuko dute fase berri horretan eragile bakoitzak izango duen pisua.

Esan bezala, Eskoziak bide diferentea hartu du. Brexita modu diferente askotan gauza daiteke, Brexit ahula edo Brexit gogorra izan daiteke, eta hasiera-hasieratik Nicola Sturgeon Eskoziako lehendakariak interlokuzio zuzena ezarri du Europar Batasuneko instituzioekin, negoziazio horretan Eskoziak zeresan handia duela adierazteko. Brexitaren ondorengo egunetan eskoziar abertzaleek Brexitak beste erreferendum bat ekarriko zuela adierazi zuten, baina azkeneko asteetan indartzen ari

Brexit ahularen aldeko apustua egin du Eskoziako Gobernuak, eta, gogorra izanez gero, erreferenduma deitzera behartuta izango dela esan. Horrek presio bikoitza ezarri dio Erresuma Batuko Gobernuari

den mezua ezberdina da, eta ziur aldaketa horretan Europarekin daukaten interlokuzio horrek eragina izan duela. Brexit ahularen aldeko apustua egin du Eskoziako Gobernuak, hori bai, Brexit gogorra emanez gero beste erreferendum bat deitzera behartuta izango direla ohartaraziz. Horrek presio bikoitza ezarri du Erresuma Batuko Gobernuaren baitan, Brexitaren negoziazioetan kanpo harremanek ez ezik barne orekek ere garrantzi handia jokatuko dutelako, erabakitzen denak Erresuma Batuaren apurketa bera ekar dezakeelako. Eta Eskoziaren ikuspegitik, aurreko erreferendumean etsai zuen Europar Batasuna hurrengo erreferendumean aliatu bilaka dezake, horrek izan dezakeen garrantziarekin.

Urte interesgarria hasi berri duguna. Bete daitezten gaur Bilboko kaleak, eta eraman dezagun gure herria ere dagokion tokira. Urte berri on guztioi! •

«Balizko Eskozia independente batek bere moneta propioa eratzeko apustua egin beharko luke»

Eskoziak ez du bigarren independentzia erreferendumik izango, ez behintzat 2017 honetan zehar. Hala iragarri du herrialdeko lehen ministroa den Nicola Sturgeonek asteon. Iragarpenak, baina, ez du herrialdeko mugimendu independentistaren asmoetan eraginik izan; ez daude geldirik egoteko. Bigarren bataila baterako prestaketa lanetan dihardute, berau noiz iritsiko den ez badakite ere. Horretara dator gaur ospatuko duten Scottish Independence Convention foroaren lan saioa. Eragile eta alderdi independentistak elkaturik, 2014ko saiaketan askatu gabe geratu ziren korapiloei soluziobidea ematen ahaleginduko dira.

Balizko Eskozia independente batek erabili beharko lukeen monetaren inguruko eztabaida izango dute gai nagusitzat gaurko saioan. Herrialdearen independentziaren aurka zeudenek zalantzak sortu eta beldurra hedatzeko erabili zuten arma nagusienetako bat izan zen monetarena orain bi urte eta erdiko ahaleginean, behar bezala landu gabeko eta Eskoziako orduko Gobernuak hartutako erabaki inprobisatuaren ondorioz. Orduko egoera saihestu eta bataila berriari begira oraino erantzun gabeko galderei ihardespena aurkitu asmoz, lan saioko parte hartzaileetako bat izango da Craig Dalzell. Ezbairik gabe, bilkurako ahots autorizatuetakoa bat ere izango da berea. Common Weal ideiak sortzeko taldearen ikerketa buru, GAUR8rekin egin du hitzordua etorkizuneko Eskozia independenteak, monetari dagokionez, dituen aukera eta mehatxuak aztertzeko.

Monetarena da balizko Eskozia independente baten inguruan hitz egitean gai izarretako bat. Zergatik hartzen du tamaina horretako garrantzia?

CRAIG DALZELL

EKONOMIAN ADITUA

Ikerketa burua da Common Weal «think tank»-aren baitan, baita ekonomian aditua ere. Eskoziaren independentziaz eta moneta politikaz hitz egin dugu berarekin.


Aimar Etxeberria Korta

Ez dago herri baten monetaren osasunari begiratzea baino haren ekonomiaren egonkortasuna, fidagarritasun eta konfiantza maila ezagutzeko. Historia euren monetarekin izan dituzten arazoen ondorioz huts egin duten herrialdeez beteta dago. Eskoziaren independentziaren inguruko eztabaidari dagokionez, independentzia bezalako aldaketa politiko batek berarekin dakar ziurgabetasun maila bat ere. Bada ziurgabetasun hori erabil daiteke jendearen artean beldurra hedatzeko, adibidez, aurrezkiez, pentsioez edo fakturak ordaintzeko gaitasunaz hitz eginda.

Behin hori esanik, benetan usate dut monetaren inguruko galdera izan zela, hein handi batean, galdera izarra 2014ko erreferendumean. Jendeak moneta aukeren inguruan galdezten zigunean behatzak gurutatu eta gure erantzunek euren artean eraginik ez izatea baino ez genuen espero. Baina jendeak erantzunak nahi zituen, eta horretan huts egin genuela garbi geratu zenean aukera independentistaren inguruan behar bezain ongi prestatuta ez geundela erakutsi genuen. Horrek ez zuen herritarren eta gure baiezkoaren aldeko kanpainaren arteko konfiantza sortzeko ahaleginean batere lagundu.

Aipatu lez, gai izarretako bat izan zen monetarena 2014ko erreferendumean. Zein izan zen Gobernu eskoziarrak hartu zuen posizioa? Ados zaude euren erabakiarekin?

Eskozia eta Erresuma Batuko gainerako herrialdeen arteko libera esterlinaren baitako batasun baten aldeko apustua egin zuen Gobernuak. Monetari oinarritutako batasun horrek esan nahiko zuen eskoziarrok gure ordezkaritza izango genuela Ingalaterrako Bankuan. Ondorioz, hitza eta erabakia izango genituen Ingalaterrako Bankuaren



Argazkiak: GAUR8

politiketan, interes tasa edo inflazio helburuak zehazteko orduan adibidez. Baina, era berean, esan nahiko zuen Eskozia moneta politika propio bat garatzeko baliabiderik gabe gertatuko zela.

Kontuak kontu, ez nago Gobernu eskoziarrak orduan hartu zuen erabakiaren aurka. Ikuspuntu ekonomiko huts batetik begiratuta zentzu guztia duen erabakia izan zen, kontuan hartu behar baitugu Eskoziaren ekonomiak zerikusi handia duela Erresuma Batuko gainerako herrialdeen ekonomiarekin. Ondorioz, moneta bera erabiltzeak erraztu egingo lituzke gure arteko merkataritza harremanak. Ekonomia ikuspuntu huts batetik, beraz, bestelako edozein aukera bezain zentzuzkoa izan zen libera esterlina erabiltzen jarraitzearen aldeko apustua. Baldintza objektiboak aldatu egin dira baina. Horregatik, etorkizunera begira monetaren inguruan ditugun aukerak aztertzen jartzen garenean, prismatiko berriekin aztertu

Ez nago Gobernu eskoziarrak 2014an libera esterlina erabiltzen jarraitzearen alde hartu zuen erabakiaren aurka. Ekonomia ikuspuntu huts batetik begiratuta zentzu guztia zeukan



behar ditugu mahai gainean ditugun aukera guzti-guztiak.

2014ko erreferendumaz geroztik, jarri al da norbait aukera berriak birpentsatzen?

Positive Money bezalako eragileak eta norbanako bakan batzuk aritu izan dira moneta aukera ezberdinen inguruko euren azterketak egiten. Alderdi politikoez hitz egitean, baina, oraingoz berdeek soilik egin dute ganorazko zerbait afera honen inguruan. Jakin izan dudanez, gaiaren inguruko proposamen zehatz bat egingo dute antza epe laburrean. Eskoziako Alderdi Nazionalak (SNP) ere ekin berri dio gaia aztertzeari, eta horretara buru-belarri jarrita dauka bere Hazkunde Batzordea. Eta, noski, Common Well *think tank*-eko kideok ere ez gara geldirik egon. 2016ko uztaillean eman genuen gure proposamenaren berri, hots, Erresuma Batuak Europar Batasuna uzteko hartutako erabakia oinarri egindako proposamena da.

Hala ere, baina, ez dago oraino aferaren inguruko erantzun bateratu bat. Zein dira mahai gainean aztergai dituzuen aukerak?

Batez ere, hiru aukera ezberdinen inguruan eztabaidatzen dugu, bakoitza bere alderdi positibo eta negatiboekin. Batetik, erabaki dezakegu libera esterlina erabiltzen jarraitzea –Erresuma Batuko gainerako herrialdeekin batasun monetario bat eratuz edo “esterlinizazioa” aplikatuz, hots, batasun monetariorik gabe libera esterlina erabiliz–. Erabaki dezakegu ere gure moneta propioa eratu eta zirkulazioan jartzea eta libera esterlinaren edo euroaren balioa ematea moneta horri. Edo batu gintezke eurora, nahiz eta sarbide arau zorrotzak dituen horrek. Kontuan hartu behar da aukera horiek guztiak direla gauzagarriak, aurrez esan bezala bakoitzak bere alde on eta txarrak baditu ere. Guztiek dute arrisku maila bat, baina ezin esan aukera bat bestea baino arriskutsuagoa denik. Arrisku mota ezber-

dinak dira eta horrela kudeatu behar dira.

Zein dira mahai gainean dauden aukera ezberdinen alde positibo eta negatiboak?

Jada aipatu dut zein den libera esterlina erabiltzearen alde ona. Nolabaiteko egonkortasuna emango lioke horrek balizko Eskozia independenteari, prezioei eta aurrezkiei dagokienez batez ere. Baina aukera horren aurka, arrazoiak 2014an zirenak baino indartsuagoak dira egun. Ezezkoaren aldeko kanpainak modu egokian asmatu zuen Gobernu britainiarraren beto eskubidearen argudioa erabiltzen eta guk une hartan aipatu argudioa onartzeko izan genuen gaitasun eza monetaren gaineko eztabaida galtzearen arrazoi nagusienetakoa izan zen. Era berean, Brexitaren ondoren, ez dago batere garbi Europarekin harremanak mantendu nahi dituen Eskozia bezalako herrialde batek bloke komunitariotik kanpoko herrialde batekin batasun monetarioa osatzeko aukera.

Batasun monetarioa gauzatu gabe libera esterlina erabiltzea aukera errealekoa dela esango nuke. Bide hori hartu duten herrialdeen esperientziek erakutsi dutenez (Ekuador dolar amerikarrarekin, Monako euroarekin, Liechtenstein franko suitzararekin), aipatutako herrialdeen tamaina oso txikia izan ohi da berenganatu duten moneta erabiltzen den espazio osoarekin alderatuta, %1 baino txikiagoa. Eskoziaren kasuan, berriz, libera esterlina erabiltzen den espazio osoaren %10 hartuko luke, eta horrek zaildu egin lezake aukera hori, Eskoziak monetarekiko hartuko lituzkeen erabakiek inpaktu handia izan baitezakete Erresuma Batuko gainerako herrialdeengan. Bestalde, Eskoziak eredu ekonomiko propio bat garatzeko erabakia hartuko balu, agian, ez litzateke aukera hobereena izango libera esterlina erabiltzearena.

Euroa gure hartzearena izan daiteke keinu egoki bat gure aliatu europarrekiko. Gainera, euroaren balioa libera esterlinarena baino txikiagoa izateak Es-

koziaren esportazioetan asko lagun lezake. Hala ere, arazo estruktural ugari ditu gaur egun euroak, eta horiek eurogunea porrotera bidera dezakete. Greziaren esperientziak argi erakutsi digu, gainera, gehiegizko zorra kudeatzeko arazoak dituela eurogunek eta, nolabait, berau uzteko bide orri edo mekanismoen falta dagoela. Alderdi horiek guztiak hartu behar ditu kontuan edozein herrialdek eurora sartu aurretik. Ildo horretan, Eskoziak ezingo luke eurora independentziaren lehen egunetik bertatik batu. Eskaera egin beharko luke lehendabizi, eta, herrialdean euroa martxan jarri bitartean, pare bat urte igaro daitezke. Horrek esan nahiko luke herrialdea independente bilakatu eta eurora batu bitartean bere moneta propioa eratu beharko lukeela Eskoziak.

Azken aukera horren alderdi positiboa litzateke moneta politikaren gaineko erabateko kontrola izango lukeela herrialdeak, adibidez, interes tasak zehaztu edo soilik beharrezkoa den dirua inprimatu eta zirkulazioan jartzeko. Gainera, erabaki ahal izango genuke gure monetaren balioa libera esterlinarengana edo eurora gerturatzea, prezioen nolabaiteko egonkortasun bat mantentzeko. Baina bada alde txarrik ere. Azkenean merkaturak izango litzateke gure monetaren balioa zehaztuko lukeen instrumentua, eta hori independentziaren aurkako argudio gisa erabil lezake ezezkoaren aldeko kanpainak.

Aukera horien guztien artean, zeinekin geratzen zara? Zer-nolako zailtasuna luke bere inplementazioak eta nola garatuko litzateke?

Common Weal *think thank*-eko kideok argitaratu genuen proposamenean balizko Eskozia independente batek bere moneta propioa eratzearen aldeko apustua egin beharko lukeela adierazi genuen. Gomendatzen genuen hasieran bere balioa libera esterlinaren baliora gerturatzea, trantsizioa errazago egin eta pentsioen eta soldaten balioa berdina edo antzekoa izateko



aurrerantzean ere. Jendeak liberatan dituen aurrezkien kasuan ere lagun dezakeen aukera da. Moneta sortzeko prozesuaren inguruko proposamena ere egin dugu, “How to Make a Currency” bezala bataiatu duguna. Proposamen horretan –zeinak euroaren inplementazioa lehen eskutik bizi izan zuten adituen ekarpena izan duen– prozesua ez dela zaila erakusten dugu, nahiz eta eman behar diren urrats guztiak modu jakin batean eman behar diren, inolako akatsik gabe.

Prozesua monetaren osagai elektronikoa martxan jartzearekin abiatuko litzateke. Hau da, Eskozia ez litzateke moneta berria fisikoki inprimatzetik abiatuko, baizik eta moneta finantza sisteman txertatuko luke. Prozesu hori erreferendumaren egunean hasi eta independentziaren deklarazioarekin amaituko litzateke. Denbora tarte horretan zehar, herritarrek Eskoziako moneta berrian oinarritutako banku-kontuak sortzeko aukera izango lukete. Ondoren, data bat ezarriko litzateke zerga eta gizarte segurantzako ordainketa guztiak moneta eskoziarrean egiten hasteko. Banku Zentral bat ere sortu beharko litzateke,

«Euroa gure egitearena izan daiteke keinu egoki bat gure aliatu europarrekiko, nahiz eta arazo estruktural ugari dituen»

moneta politikaz arduratuko litzakeena. 50 milioi libera esterlinako aurrekontua izan lezake bere lehen urteetan, baina aurrera egin ahala autofinantzatu egin beharko litzateke.

Aipatutako guztia aurrera doan heinean, herritarren artean egindako kontsulta batek txanponen eta billeteen diseinua hautatzen lagun lezake, eta horiek monetak hiru urteko iraupena izan dezan kopuru egokian inprimatuko lirateke. Hiru urte horien ostean moneta berria izango litzateke Eskoziako moneta ofiziala, eta, orduan, Gobernu eta Banku Zentrala libre izango lirateke monetaren balioa libera esterlinari itsatsita mantendu edo ez erabakitzeke.

Gaia gaurko Scottish Independence Convention foroaren saioan landuko duzue. Zer espero duzu ariketa horretatik?

Hasieran esan bezala, monetaren aferra izan zen 2014ko erreferendumeko gai izarretako bat. Ondorioz, gaia gaurko bilerara eramatearen arrazoia da jendea birgogoratzea korapiloak askatu gabe jarraitzen duela oraino. Guk gure proposamenaren berri emango dugu, eta horrek eztabaida abiatzeko balioko du

behintzat. Ados edo ez, etorkizunera begira baliagarria izango den informazio baten berri emango dugu, eztabaida serio bat garatzea ahalbidetu dezakeena. Agian adostasun batera ere iritsi gintezke, batek daki. Prozesua bera, beraz, 2014an ezezkoaren aldekoek garatu zuten kanpaina baino osasuntsuagoa dela esan nezake, proposamena edozein zela “ez” esatera mugatzen baitziren haiek.

Azkenekoz, baina, Gobernuarena izango da proposamen zehatz bat egiteko ahalmena. Zenbaterainoko garrantzia dauka aferra honetan mugimendu sozial, «think tank» eta abarren inplikazioak?

Independentziarekiko lotura duten erabaki guztiak ahalik eta modu kolektiboenean hartzea litzateke egokiena. Horretarako, pentsatzen ari gara erabaki guztiak Scottish Independence Convention foroaren baitan hartzea, ordezkarri eta bozketa bidez, bertan ordezkatuta baitaude eragile eta alderdi independentista nagusienak. Aurrera dezaket, baina, hainbat eragile eta alderdi politikorekin izan ditudan hitzorduetan argi geratu dela gehiengoa Eskoziak bere moneta propioa jaurtitzearen aldekoa dela. Horrek ez du esan nahi, baina, dena egina dagoenik eta zabalik gaude oraino proposamen berriak jasotzeko, baina soilik eskatzen dugu guk inbertitu dugun adina denbora inbertitzeko ikerketa lanetan eta proposamenaren garapenean.

Eskoziaren independentziaren aferra garrantzitsuegia da soilik alderdi politikoen esku uzteko, garrantzitsuegia soilik alderdi politiko bakar baten esku uzteko. Horregatik da mugimendu sozialen eta *think thank*-en lana berebizikoa. Common Weal taldean daramadan denboran zerbait ikasi badut, honakoa da: Eskozia talentu eta trebezia betetako herrialdea da. Monetaren inguruko proposamena garatzeko orduan izan ditugun ekarpenak dira horren adibide. Horregatik, proposamenari egindako ekarpen gehiago jasotzeko beso zabalik gaude.



AFP



IKUSMIRA

IRANEN ZENTRISMOA IRUDIKATU DUEN RAFSANJANI ZENDU DA

Bihotzekoak jota hil den Akbar Haxemi Rafsanjani politikari eta kleriko irandarrak herrialdeko sektore gehien agurra eta ohorea jaso ditu asteon. Eta oraingoan ez da hildakoei normalean zor zaien errespetu kontua bakarrik izan. Onerako eta txarrerako, Iranen «zentroa» bere egiten jakin izan duen politikorik bada, hori

Rafsanjani izan da zalantzarik gabe. Ruhola Khomeiniren gertu-gertukoa, Iraken aurkako gerran Errepublika Islamikoko Armadako buru, Aiatola Handiaren heriotzaren ondoren Irango presidente bilakatu zen. Bere burua kontserbadore pragmatikotzat zuen; beraz, erreformisten alde egin izan zuen, bai, baina «liberalismoa» ekonomiara eta Washingtonekin harremanak normalizatzerara mugatuz. Hala, ez da harritzekoa Ali Khamenei egungo aiatola, Hassan Rohani Irango presidentea eta baita Etxe Zuria ere bat etorri izana Rafsanjaniren izaera politikoa goraiatzeko orduan, bera gabe Irango bilakaera historikoa ulertzerik ez baitago. Dabid LAZKANOITURBURU

AFRIKA

Nigeriak bat egin du Kongoren arroko ura Txad lakura eramateko proiektuarekin

 **AZPIEGITURAK** / joseangel.oria@gaur8.info

Txad lakua lehortzen ari da azken hamarkadotan, milioika lagun biziaren bizimodua hankaz gora botatzen du. Bere garaian Nigeriako agintariek baztertu zuten TransAqua proiektua (Kongo ibaiaren arroko ura lakuraino kanal nabigagarri baten bitartez eramatea) ontzat eman berri du Buhari egungo presidenteari. Afrika benetan aldatzeko aukera bat da.

Ur eskasiarik ez duten Kongo ibai erraldoia- ren adarretako ura eramateko kanal nabigaga- rri bat eraikiko litzateke, Kame- rungo Chari ibairaino. Urak 2.800 kilometro egingo lituzke Txad lakua berpizteko eta berta- ko arrantzaleek beren bizimo- dua berreskuratzeko aukera izango lukete.

Askotan esan izan dugu Afri- kako azpiegitura gehienak kolo- nizazio garaikoak direla, eta ko- lonizatzaileen interesen arabera egindakoak, jakina (itsasertzetik baliabide naturalak dauden le- kuraino doaz errepide eta tren- bide asko). TransAqua proiektua aurrera ateratzen bada, ia azpie- giturarik ez duen eremu zabalak komunikabide berria izango lu- ke, inguruko herrialdeetako mi- lioika laguni eta ekonomiari mesede egiteko. Merkataritzak gora egingo luke, eta pobrezia

Ezkerreko irudian, arrantzale bat sarea botatzen lukuan. Eskuinekoan, ontzi txiki bat herritarrek puntu batetik bestera eramaten. GAUR8

behera, Muhammadu Buhari Nigeriako presidenteari ingu- ruak nabarmentzen dutenez.

«Garai batean, sarea gutxitan bota behar zenuen milaka arrain lortzeko. Orain, berriz, arrain kopuru bera ateratzeko egun osoa pasa behar duzu la- nean», zioen orain hiruzpalau urte Mahamat Aboubakar arrantzaleak. Bagre beltz bat (si- luriforme ordenako arrain bat) baino ez zuen sare handian. 65 urtetik gora dituen herritarrek gogoan du lehen egunean 50 dolar irabaztera iristen zela; egun, baina, nahikoa lan izaten du bi dolar pilatzeko.

ALDI BATERAKO NEKAZARIAK

Beste arrantzale batzuek dagoe- neko hartua dute jarduera eko- nomikoa aldatzeko erabakia. Ahmadou Bello da horietako bat. Kaupi motako babarrunak, artoa, arroza eta piperrak ekoiz- ten ditu gaur egun, ongarri arti- fizialik erabili gabe. Bere jardue-

ra oso ondo doala-eta, Bellok na- barmen du desagertzen ari den lakuak oso lur emankorra utzi duela. Baina lakuak egungo joerari eusten badio, aurki neka-





Txad lakuko ura arropa garbitzeko ere erabiltzen dute inguruan bizi diren herritarrek.
GAUR8

zaritza ere ezinezko izango da berarentzat.

Azken datuen arabera, 30 milioi pertsona inguru bizi dira irteerarik ez duen lakuaren itsasertzean. Bizirik jarraitzeko ezinbestekoa dute lakua eta, erabat lehortuko balitz, krisi humanitario ikaragarria sortuko litzateke eremu zabal batean.

Txad lakuak 26.000 kilometro koadro zituen 1960an eta 2.000 besterik ez ditu egun. Klima aldaketa da egoera hori eragin duten faktoreetako bat, leku asko basamortu bihurtu baititu.

Baina gizakion jarduera ere oso kaltegarria izan da. Paul Ghogomou Jaundeko Unibertsitateko adituak esplikatzeko lakura doazen ibaietako ur asko inguruetako lurra ureztatzen erabili dela. Hori gertatu da, esaterako, Kamerun zeharkatzen

duen Chari ibaiarekin (lakura iristen den uraren %90 ematen du). Gainera, Nigeriako ipar-ekialdeko Jama'are eta Hadejia ibaietan urtegiak eraiki dira azken urteotan, eta horiek ere larrigotu egin dute egoera.

POPULAZIOA BIKOIZTU

Abdullahi TLAB Txad Lakuaren Arroko Batzordeko (nazioarteko erakunde horretan Kamerun, Txad, Niger, Nigeria, Aljeria, Afrika Erdiko Errepublika, Libia eta Sudan daude) eledunak nabarmendu du populazioa bera asko hazi dela lakuaren inguruan: «Orain berrogei urte, Txad lakuko populazioa 17 milioikoa zen. Une honetan 30 milioi lagunetik gora biziko dira bertan. Gizaki gehiago, abelburu gehiago eta klima aldaketak eragindako lurrunketa masiboa.

Faktore horiek guztiak kontuan hartuta baino ezin da ulertu lakuari gertatzen ari zaiona».

Kanadako CIMA-International lakura ura eramateko proiektuen egingarritasuna aztertu izan duen etxeak egin dituen kalkuluen arabera, ezer egin ezean, lakua erabat lehortuta egongo da 2025erako.

Txad lakuak 26.000 kilometro koadro zituen 1960an eta 2.000 inguru besterik ez ditu egun. Klima aldaketa da egoera hori eragin duten faktoreetako bat, baina ez bakarra

«Orain berrogei urte, Txad lakuko populazioa 17 milioikoa zen. Une honetan 30 milioi lagunetik gora biziko dira bertan. Gizaki eta abelburu gehiago eta lurrunketa masiboa»

Uneotan indartzen ari den TransAqua proiektuak egoera hori saihesteko gaitasuna du. Nazioarteko erakundeek duela 30 urte ezagutu zuten ekimena, baina orain artean baztertu izan dute. Hori 2014ko azaroan hasi zen aldatzen, N'Djamena Txadeko hiriburuan Nazioarteko Batzorde Zientifikoa elkartu zene-

an. Orain hilabete bat beste urrats garrantzitsu bat egin zuen TransAqua. Txinako Energia Konpainiak, TLAB batzordeak eta Nigeriako Gobernuak proiektua abian jartzeko itun bat adostu zuten, Kongo ibaiaren arroko ura Txad lakura eramateko. Helburua da urtean 100.000 milioi metro kubiko ur garraiatzea.

Ura hain bizkor lurrundu ez dadin eta gero eta egoera larriagoan dagoen faunari eutsi ahal izateko, milioika zuhaitz landatzeko asmoa dute. Kontuan hartu behar da oso sakonera gutxi-ko lakua dela Txad (metro eta erdikoa batez besteko datuen arabera, eta zazpi metrokoa punturik sakonenean).

ETORKIZUNA ARGITU

Gainera, zentral hidroelektrikoek energia eskainiko diote eskualdeko ekonomiari. TLAB batzordeak plazaratutako agiri baten arabera, TransAqua 25 milioi kilowatt-ordu energia eskaintzeko gaitasuna du. Argindarra funtsezko faktorea da Afrikaren garapena eta industrializazioa lortzeko, baina, kasurik gehienetan, ez da lortzen. TransAqua proiektuaren sustatzaileen arabera, industrializazioa ahalbidetuko luke egitasmoak, nekazaritza aldatzeaz gain, bertako nekazariak eta bestelako ekoizleak beren produktuak esportatzeko aukera izango baitute. Beraz, lanpostu berri asko sortuko direlakoan daude.

«Amets egitera ausartu zaitetze eta Kongoko Kivutik Txadeko lur idorretara, genozidioak suntsitutako Kongoko Errepublika Demokratikotik eta pobreak sumindutako Afrika Erdiko Errepublikatik barrena joango den iraultza sortuko da», idatzi dute Africanagenda.net webgunean. «Konpainiei mesede egin beharrean herrialdeei egingo dieten proiektuetan oinarritutako etorkizuna eraikitze garaia da; gerra beharrean elkarlana beharko duten proiektuak abian jartzeko ordua da; mekanizazioa, argindarra, talentua, berrikuntza, lana eta duintasuna ekarriko duten proiektuak».



Oier Gorosabel
Fisioterapeuta eta osteopata

Ariketa terapeutikoa

Behin batean, Fisioterapia-ren mundu lisergikoan terapia ugari bizi ziren elkarrekin. Haien artean nagusi zen Ariketa Terapeutikoa: pazienteen gorputza indartuz osasuna sendotzeko modu klasiko, merke, eraginkor eta iraunkorra. Harekin batera beste terapia fisiko asko ere bizi ziren: Esku Terapia eta Masaje anaiak (askotan jendeak nahasten zituenak), Ultrasoinuak, Elektroterapia, EPI bezalako jaioberriak... Horiek eta beste anai-arreba asko, biribilketa alaian, eskutik helduta saltoka aritzen ziren batetik bestera, Fisioterapiaren mundu arrosa eta orlegian jendearen osasuna fisikaren super-botereen bitartez hobetzen, botikarik erabili gabe. Zoriontsu. Baina, pixkanaka-pixkanaka, senide txikiak Ariketa Terapeutiko handia baztertzen hasi ziren. Eta baztertzen, eta baztertzen... Azkenerako, teknika pasiboek protagonismo osoa hartu zuten, arrazoi desberdinek tarteko: izan fisioterapia zerbitzuetan tekniko lehentasuna eman zitzaiera (paziente gehiago denbora gutxiagoan hartzearen), izan balio handiagoa eman zitzaiera tratamendu pasiboek (ai, zelako eroso den ohatilan besterik gabe etzatea!). Modak ere izango zuen zerikusirik...

Kontua da gure lagun handia, Ariketa Terapeutikoa, zeharo baztertuta gelditu zela. Oso triste. Antzinako garai onak ahaztuta (fisioterapia zentroak "gimnasio" gisa ezagutzen ziren garaiak), gaur eguneko munduan inork ez zion batere kasurik egiten. Ez hori bakarrik: fisioterapeuta batzuk bere funtzioa ukatzen ere hasi ziren, eta, azkenean, belaunaldi berriko profesionalak ez zekiten nola erabili behar zen ere. Baina, noski, Ariketa Terapeutiko handiak ezin zuen hutsune txikia utzi. Horretara, gabezia hori betetzeko premia etorri zen, eta horrela jaio ziren Pilates anaiatxoa, Hipopresibo gazteak, Kabat, Busquet edo Kegel bezalako senide exotikoak... Gutxiegi, halere, horrelako hutsune handia betetzeko.

Bitartean, Ariketa Terapeutiko gaixoa hor zebilen, nora ezean desterraturik,

Fisioterapiaren Munduaren bazterrean burumakur. Eta, halako batean, nor pasatuko, eta Kirol Zientzia eta Jarduera Fisiko jauna (KZJF), txistuka. Pasatu zen bai pasatu, eta, Ariketa Terapeutikoari txisterarekin kasu egitean, segituan jabetu zen triste-triste zela. Haren penak eta doloreak entzun ostean, ahoan irribarrea loratu zitzaion, eta begi nini baikoitzean dolarraren sinboloa. KZJF jaunak besoa sorbaldatek pasatu zion Ariketa Terapeutikoari, eta berak entzun nahi zuena esaten hasi zen: berak asko estimatzen zuela haren ahalmen sendagarria, pazientearen osasuna sendotzeko paper garrantzitsua zuela... Ariketa Terapeutikoak ez zuen besterik entzun nahi. KZJF jaunaren besoetara salto egin eta berarekin batera joan zen, ilunabar eder hartan. Saltoka eta txistuka, noski.

Fisioterapiaren mundu psikodelikoan ez zen inor konturatu ere egin. Fisioterapeutak modek eta erosotasunak era-

bat liluratuta zeuden, hodeietan, faszien tensegritatea zela-eta elikaduraren mundu misteriotsua ulertu nahian, kranioko mugimenduak sentituz, masajeak barra-barra emanez (jendeak hori eskatzen baitzuen) edota Pilates taldeak eratzen. Konturatu zirenerako, beranduegi zen; ospitaletan KZJF graduatuen arduraeko gimnasioak zeuden, kardiopatia edo minbizi kasuetan Ariketa Terapeutikoak duen onura handiak baliatuz...».

Batzuetan, umeen ikuspegi xaloa gure mundu konplikatua hobeto ulertzeko lagungarria izan daiteke, eta, zentzu horretan, Olga Rabadan lankideak asmatutako (eta nik LSDz pipertutako) ipuin honek etorkizun hurbila irudika dezake, kontuz ibili ezean. Esaera zaharrak dioen moduan, "Egin ezak lo, eta jango duk mehe!". •

www.abante.eus



Senide txikiak Ariketa Terapeutiko handia baztertzen hasi ziren.

Jon HERNÁEZ | ARGAZKI PRESS

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Hodeietan kaleak etorbide, inork ez du eragotziko euria!

Presoen egoera barruraino sartzen zaigun labankada gardena da, gure barne-erresumetan irekia dugun zauria. Gure min eta ezinen poligrafoa dugu, askapen prozesuaren demonstretaren zailtasun eta kontraesanen erakuslea. Gure kontzientziak mailukatzen dituen gaia da, gure frustrazioen iturria, gure itxaropenen bolbora, estatuek gure konfiantza propioak husteko, borondate kolektiboa likidatzeko darabilten arma.

Barruan dauden minkideez hainbat komunikabidek hitz egiten dutenean, psikoanalisi kriminal, ikerketa konspiratzaile edo intimismo mediatikoaren eskutik mintzo dira. Aurreiritzirik gabeko gogoeta kritiko bat egiteko laizismorik ez da inon ikusten. Garaile eta garaituen merkatuan sartu nahi dute, dena ala ezer ez, arrazoi guztiak ala bat bera ere ez, deabrutuak ala santifikatuak. Historiari zentzua eta gertakizunei kausak lapurtu nahi dizkietelako, Euskal Herriaren askapen borrokaren hantitasunaren aldarrikapena kondenatu nahi dutelako, gertaerei inteligentzia ukatuz, iragan zehatz bat izan duten minkideek ez dutela etorkizun bat izateko eskubidea dekretuz ezarritik.

Euskal presoei ezarritako politikak aspaldi lausotu zituen justiziaren eta mende-kuaren arteko mugak. Kalkulu hotz eta madarikatu batek gidatu du politika hori. Gureak kartzelan dauzkatela eta kaleratzeko giltza itsasoan hondoratuta dutela pentsarazi nahi digute, kaleratzeko zirrikiturik ez dagoela sinistarazi, eta dauden apurak hain estuak direla ze horietatik pasatzeko modu bakarra belaunikatuta egitea dela, borrokan kide izan direnen ehiztari eta epaile bilakatuz. Eta itxaropena galtzeko horren aurrean eutsiko duen ildo, konfiantza edo dena delakorik ez dagoela esaten digute.

Oker dabilta, baina, oso oker. Iragan bat dute, bai, eta etorkizun bat izateko eskubidea ez dute zapuztuko. Hori dute estatu-doktrina, eta ortodoxia horren zaintzan tematuta segituko dute. Baina ongi dakigu, aurrerabidea, beti, ortodoxiaren zaintzan baino heresiarako eskubidearen babesean oinarritzen dela, indarrean dagoen ordenaren aurkako eraso batekin hasi behar dela.

Eta hasia da dagoeneko, horixe baietz. Kalera Kalera ekimenak giroa piztu du. Herrietan eta auzoetan suma-

tzen da beste gogo bat, zirimiria lege ekimen mordo batek busti ditu gure bazterrak. Tristurak jota, giroa pattal, frustrazio puntu batez min gehien ematen diguten horretatik nola atera asmatu nahi eta ezinean ginen aspal-ditxo, baina sumatzen da beste txispa bat, baikorra eta ilusionagarria den haize ufada berri bat.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak (EPPK) eztabaida abian du. Askapen prozesu politikoan eta bere egoera propioari dagokionez izan beharreko jokabidea zehazteko beharraz dihardu, kartzelak hustuko dituen indar metaketa nola ahalbidetu hausnarrean. Ekimenaren arrakasta, izatekotan, ez da garai bateko ekuazioa birsortzea, etorkizuneko dinamikan eragitea baizik. Herriarekin bat eta munduaren aurrean, estatuei espazioak murriztuz, jokoa zailduz. Betiere barneratuz, pertseberantziarekin batera, apustu guztiak direla inperfektu eta bukatu gabek, eta hori ere halakoa izango dela.

Sentimenduak oilo-larru eta obligazioak su, behar gaituztelako, behar ditugulako, kaleak hartu eta etorbide bihurtu. Hori iragartzen duten hodeiak ari dira metatzen. Inork ez du eragotziko euria!

Gaixo dauden minkideak askatzea, dispartzioarekin amaitzea edo kaleratzeak ahalbidetzeko jokaldi sozial eta instituzional zabala artikulatzea, gure herriaren etorkizunari begirako inbertsioa da. Abiapuntu berria da, adostasun berria eskatzen duena. Hartara, lur hartzeko eta aire hartzeko, pista berria zabaltzen ari da EPPK. Denoi dagokigu hori babestea, egitura jator eta baliabide zorrotzekin hornitzea. Taula politikoan irekiera berriak entseatzek, urrats zehatz eta gauzagarriekin ibiltzea.

Jendetza batuko da gaur Bilbon. Hunkigarria izango da, presoekiko sentimenduak oilo-larru eta obligazioak su eginda, beste behin, milaka eta milaka aberkideren bihotzak zafratuko dira. Behar gaituztelako, behar ditugulako, kaleak hartzea dagokigu haien zat etorbide bihurtzeko. Mezu hori iragartzen duten hodeiak ari dira zeru gainetan metatzen. Inork ez du eragotziko euria! •

ZERBITZUAK, ESKURA?

Bizi baldintzen argazkian, desorekak ageri dira gure lurraldeen artean

Gaindegiak “Ongizate azpiegituren irisgarritasuna euskal udalerrietan” azterlana kale-

ratu berri du, Udalbiltzarentzat osatua. Udalerri udalerri, Euskal Herriko 685 udalerrietara iritsi arte, herritarrek osasun zentro, ikastetxe eta gizarte baliabideetara, hau da, oinarri-oinarrizko zerbitzuetara duten distantzia neurtu du. Gabezia eta desorekak markatu ditu mapan, lurralde antolamendu orekatu baten aldeko jarrerak elikatzeke balio izango duelakoan.

Txostenaren lehendabiziko ondorioa da euskal geografia bi espaziotan banatzen dela: alde batetik zerbitzuak eskuragarri dituen kostaldea, Bizkaitik Lapurdiraino, hegoaldeko hirigune nagusiak barrenean hartuz, Gasteiz, Iruñea eta Tuteria; bertzetik, nabarmen irisgarritasun gaitzagoa duen barnealdeko ardatza, Ebro ibarretik ekialderaino doana.

Bigarren puntu aipagarria da administrazio eremuen arabera hagitz desberdinak direla zerbi-

ONGIZATEA / Maider Iantzi Goienetxe

Eskolak, osasun zentroak, zerbitzu sozialak... Oinarrizko baliabideetara iristeko egin beharreko distantziak neurtu ditu Gaindegiak udalerri udalerri, Euskal Herriko 685 udalerrietara iritsi arte. Bitan banatzen da mapa: batetik, kostaldea, zerbitzuak eskuragarri dituen, eta, bertzetik, barnealdeko ardatza, baliabideak urrunago dituen.

tzuen antolaketa eta ezarpena. Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behatokiak dioenez, horrek agerian jartzen du gainbehera demografikoa ez dela berez datorren gertaera, baizik eta politika publikoen arabera.

BIZIAREN TERMOMETROA

Erreportaje honetan, datuak jasotzeaz gain, lekukotasunak bilatu ditugu, lurraldeak giza geografia behar duelako, eta, Gaindegiak azaldu bezala, euskal lurraldea, historian aldatuz joan dena gaur egun dena izate-

ra ailegatu arte, pertsonak, komunitateak eta jarduerak barne hartzen dituen espazioa delako. «Hor dago, inon egotekotan, euskal lurraldetasunari eusteko etorkizuneko bermea».

Bizitasuna neurtzeko termometroa da zerbitzuen eskuragarritasuna, eta euskal geografian desberdintasun nabarmenak ageri dira. «Oinarrizko baliabideetara iristeko egin beharreko distantziak aztertuz lur eremu bakoitzaren bizi baldintzen argazkia osatzen da, lurralde funtzionalen artean dauden desorekak azaleratuz».

Adinekoen zaintza, Donibane Lohizuneko Triakaldi zentroan. Behean, Baztango ikastola. Isabelle MIQUELESTORENA - Jagoba MANTEROLA / ARGAZKI PRESS



PATRICK QUEHEILLE «KANPO»

BARKOXEKO HERRITARRA


«Ez gara geroaren beldur izan behar. Bada herri ttipietan bizitzeko nahia»

Zuberoako udalerri nagusieta-koa da Barkoxe. Basabürüan kokatuta dago eta 740 biztanle inguru ditu. Patrick Queheille bertako Herriko Etxeko langilea da, *Kanpo* ezizenaz ezaguna (familiaren etxearen izena da). Etxahun kultur elkarteko burua, dantzaria, dantza erakaslea eta pastoral idazlea da.

Kontatu digunez, kasik zerbitzu guztiak dituzte herrian momentuan: eskola, mediku bat, botika, denda eta ostatuak. «Bai-

na ohartu behar gara komertzio horien atxikitzaileak zahartzen ari direla. Horrek arrangura eta kezak sortzen ditu, eta Herriko Etxea lanean ari da horri buruz». Zehazki, herri elkargoaren bidez artatze etxe bat sortu dute herri zentroan.

«Ospitalera urrunago joan behar dugu. Oloroen dugu bat, 15-20 kilometrotara, eta beste bat Donapaleun, 40 kilometrotara. Beste zerbitzu batzuk Maulen ditugu, 15 kilometrotara».



Pastoral idazlea da Patrick Queheille.

Eskolari dagokionez, gela barreko ikastetxe ttipi bat dute Barkoxen, hogeikasle ingururekin. Hezkuntza elebiduna eskaintzen da bertan, euskaraz eta frantsesez. Badira umeak Sohütako Eperra ikastolara eramaten dituzten familiak ere. Berau 13 kilometrotara dago eta bada garraio publikoa, departamentuak bere gain hartzen duena.

Zahar etxe eta gizarte zerbitzurik ez da herrian eta Maulera jo behar dute.

Jende gehiena laborantzatik bizi dela dio Kanpok. Laborantza ttipiak dira. Enpresetan lan egiten dutenak ere badira, Maulen eta Atharratzen.

«Dauden zerbitzuei eusteko entseatzen gara. Jendea zahartzen ari da eta sortze gutxi dira. Hori da gure kezkarik handiena. Azken bost urteetan lauzpabost sortze izanen ziren urtean. Zubero osoan lan bat egiten ari da jakiteko gazteek zein nahi dituz-

ten herri txikietara etortzeko. Lagundu behar ditugu, proposatu eta esplikatuz behar diegu posible dela herri txikietan bizitzeko handietan bezain ontsa. Gazteek badute nahia. Kontzientziatze pixka bat bada horri buruz. Herri handietan ere badira nekeziak. Lana atzematea da giltza eta hemen langabezia gutxi da».

Itxaropentsu mintzo da Patrick. «Ez dugu beldurrik izan behar etorkizunari buruz. Bada herri ttipietan bizitzeko nahia. Ez da duela 15-20 urte bezala. Orduan jendeak joan egin nahi zuen».

Irriak eskapo egiten dio denek kostaldea nahi dutela erratean. «Han ere badira nekeziak», dio. Barnealdea egokia izaten ahal da lasai erretiratzeko edo familia bat eraikitzeko. «Esperantza badut demografiaren gabeziak konpondu eta populazioa atxikitzeko», adierazi du.

SABIN KORTABITARTE


LEA IBARREKO HERRITARRA



«Gazteen %90 kanpora joaten ziren lehen; orain %90 bertan gelditzen dira»

Sabin Kortabitarte Aulestin bizi da. Industria ingeniari teknikoa da, urtetan irakasle izana Markinako eskolan. Eskualdean lana topatzea nekeza zen garaian, duela 40 bat urte, bertan gelditzea, eta, hainbat lagunekin batera, Lea ibarreko garapena bultzatzea aukeratu zuen. Epe luzera begira, poliki-poliki, bertatik bertara eta behetik gora egindako lan horrek eman di-tuen fruituekin kontent ageri da orain, baina erne dago, eginda-koari eusteko eta gaurkotzeko erronkarekin, badakielako urte luzetako ahaleginarekin kostata lortutakoa lo uzten bada bat-ba-tean galtzen ahal dela.

Oroitu du 1970eko hamarka-daren erdialdean Lea ibarra (Oiz menditik Lekeitiora doana, Mu-nitibarren barna) biziberritzeko hazia ereiten hasi zirenean ez zegoela itxaropenik bertan eta lehendabiziko lana hori alda-tzen hastea izan zutela.



Kortabitartek industria arloa jorratu izan du EH Bildun. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

EPE LUZERA BEGIRAKO LANA

«Lea erabat husten ari zen. Ez zegoen industriarik. Lekeition arrantza desagertzen zihoan. Bestela nekazaritza zegoen, bai-na baserri eta herri txikiak gain-behera zihoazen. Orduan mugimendu garrantzitsu bat sortu genuen gazteen artean. Okami-kako industrialdea ere, Gizabu-ruagan kokatua dagoena baina eskualde osoarena dena, hortik jaio zen, eta horrekin batera be-rreskuratu genituen herrietan galdutako eskolak. Ez genuen multinazionalik xede; epe luze-ra begiratu, eta dibertsifikazioa bultzatu genuen. Hala, indus-trialdeko enpresa gehienak txi-kiak eta ertainak dira».

Inurrien lorpenak begi bista-koak dira gaur egun. Kortabitar-tek azaldu duenez, duela 30 urte gazteen %90 kanpora joaten zi-ren lanera. Orain, aldiz, alderan-tziz gertatzen da, gazteen %90 herrietan gelditzen dira. Horre-tan zerikusi handia dute aipatu-

tako industrialdeak eta udalek aitzinera eramaten dituzten po-litikek, jendeak etxebizitza eta eskola izateko adibidez.

Markinan maila handiko ikas-tetxe profesional bat izatea ere lagungarria izan da. Jendea prestatuta ateratzeaz gain, en-presa pila sortu da bertatik.

Zerbitzuekin segituz, Lekei-tion zahar egoitza bat dago as-palditik, eta bertze berri bat da-go Munitibarren. Eguneko zentroa ere badu Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoak.

Osasunari dagokienez, lehen ez bezala orain herri guztiek du-te zentro txiki bat medikuare-kin. Lekeition anbulatorio txiki bat dago eta larrialdiren bat ba-da hara bideratzen dute jendea. Gernikako ospitalera ere bai. Maila altuagoko kirurgietarako, Galdakaoko ospitalea dute.

Bertze baliabideei dagokienez, 800 biztanletik hurbil dagoen Aulestin kirol zerbitzu pila da-go, ikastaroak antolatzen dira, haur eta nagusientzako ekin-tzak... «Udalek lan handia egiten dute. Leako udal denak elkarre-kin ari dira, Mankomunazgoak koordinatuta. Elkarrekin ere pa-per garrantzitsua jokatzen dute. Horrek egiten ditu herri biziak».

Lan hau guztia gazteei trans-mititzen saiatzen ari dira orain, toki denetan bezala, arriskua da-goelako pentsatzeko eskola edo industrialdea beti egon direla hor. Kortabitartek berretsi due-nez, dena lotuta doa; kontua ez da enplegua sortzea soilik, kul-tur kontzientzia piztu behar da, eskolak sustatu, udal berrietara-ko jendea prestatu... Horixe da Lea ibarrean aspalditik martxan den abentura.



IZASKUN ABAIGAR GARCIA DE AZILU

KANPEZUKO HERRITARRA

«Zerbitzuak oso erraz erabiltzen ditut. Arazo nagusia lan esparruan dago»

Santikurutze Kanpezu izen bereko Arabako Kuadrillako herri nagusia da, udal propioa du eta inguruko populatuena da. Nafarroarekin egiten du muga; 4 kilometro baino gutxiagora ditu Genevilla eta Zuñiga.

Ikuspuntu subjektiboago batetik, Izaskunek erranen luke berezko bizitza duen herria dela: «Komertzioa badugu (supermerkatu txiki bat, janari denda txiki bat...), hainbat taberna dau-de, aholkularitza enpresa bat, tailer mekanikoak, gasolindegia, hainbat banketxe eta kutxazain,

ile-apaindegiak, dentista, baita arrain-haztegi bat ere. Udarán, gainera, aukera aparta izaten da udal igerilekuak erabiltzeko, bertako tabernan freskagarriren bat hartzeko, Fresnedoko ibaiko igerileku naturalez gozatzeko».

Kanpezuk eskola eta institutu publikoa ditu (0-2 urteko haur eskolatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara), kultur etxea (kirol eta kultur ekintzak egiteko, ludoteka eta liburutegia erabiltzeko...), udal frontoi estalia, kiroldegi erdi-estalia eta futbol zelai handia.

Osasun zentroa, botika eta zaharren egoitza ere baditu. «Hala, esan daiteke badituela oinarriko zerbitzuak, eta aisialdirako zenbait aukera ere bai».

Jaiotzez gasteiztarra da Izaskun baina txikitatik ibili izan da Kanpezun, familia osoa hemengo duelako. «Jada hiru urte daramatzat bertan bizitzen, errol-datuta, eta ez dut gertueneko herri eta hiri handietara jotzeko beharrik: Gasteizera, Lizarrara edo Logroñora (denak 40 kilometrotik beherako distantziara), ez bada, noski, ospitalera, la-



Izaskun gasteiztarra da jaiotzez baina Kanpezun bizi da, gustura gainera.

rrialdietara edota bestelako tramite administratibo eta erosketak egitera. Herriko zerbitzuak erraztasun handiz erabiltzen ditut: familia medikua, kirol ekintzak, botika, tabernak, gasolindegia, tailerra... Arazo nagusia lan esparruan kokatzen dut. Kanpezun erroldatutako 16 urtetik gorako biztanleen %64k herritik kanpo egiten dute lan, eta horrek gastu handia eta egunero batez beste 55 minutuko bidea egitea dakar. Horrek esan nahi du 16 urte baino gehiagoko biztanleen erdia baino gehiago

doala kanpora lanera edo ikastera egunero-egunero, horren suposatzen duen gastu, arrisku eta ahaleginarekin».

Etxebizitzari erreparatuz, dio ez dela erraza izaten alokairuko etxeak aurkitzea, salgai badago baten bat gehiago, baina denboraldi batez alokairuan eta merke bizitzea nekeza da (400 eurotik beherako alokairurik topatzea oso zaila da). Horretarako eraikita eta bete gabe dauden hainbat etxe eta etxe bloke eskaintza publiko batean ematea ikusten du komenigarriena.

REBEKA GONZALEZ DE ALAIZA

ERROETAKO HERRITARRA

«Herriak bizia izatea nahi dut, eta ez soilik lanerako»

Arabako herririk altuena da Erroeta 956 metroekin. Zortzi etxebizitza eta hogeitaz bizi dute, tartean Rebeka. «Zerbitzu» bakarrak eliza eta hilerria dira, orain itxita dagoen gizarte zentro batekin batera.

Emakume alargun ugari bizi dira herrian. Emakumeok etxea mantentzen dute eta semeek (hala izaten dira, mutilak) abeltzaintzan eta nekazaritzan lan egiten dute. «Batzuk Erroetara etortzen dira lanera, bertan erroldatuta daude, baina bikotekide eta umeak Agurainen eta Gasteizen dituzte eta han bizi dira. Horrek kezkatzen nau».

Bakarrak bizi da Rebeka, gurasoen etxea izandakoan. 29 eta 20 urteko seme-alabak ditu. Gazteena Donostian ikasten ari da eta gutxi bisitatzen du Erroeta. Zaharrena Gasteizen du. Rebeka ere bertan bizi izan da, baina Erroetakoa da eta herrira itzuli zen duela hiruzpalau urte. «Nahiago dut herri batean bizi, pozik nago». Hori bai, autoa bai ala bai behar du. Hainbat talde dituzte eskualdean: Lamingorriak emakume taldea, bertso eskola, euskara taldeak... Lagunak elkartu eta Kanpezura edo Maeztura joaten dira, taberna duten herrietara.



Rebekak hogeitaz bizi dute herrian, baina Erroetakoa da eta herrira itzuli zen duela hiruzpalau urte.

70 urtetik gorako emakume batzuk eta gizon bat bizi dira Erroetan, eta 40-50 urte bueltako gizon batzuk eta emakume bat. Rebeka Agurainera joaten da egunero lanera. 15 kilometrotara dago, baina Opakuan barna

joan behar da; hala, elurra egiten duenean, Gasteizen gelditzen da, bizpahiru egunez inkomunikatuta egoten baita herria.

Orain ez da haurrik Erroetan, baina Rebekak Maeztuko eskolan ikasi zuen eta inguruko he-

rri txikietako umeak ere bertara joaten dira autobusez. Han bazkaldu eta arratsaldean bueltatzen dira etxera. Erroetatik ez da errepide nagusirik pasatzen eta ez dago lineako autobusik. Taxi gidariari bezperan deitu behar zaio Maeztura medikura edo eguneko zentzora joateko. Beharrezkoa bada medikua joaten da etxera eta gizarte laguntzaile bat ere ibiltzen da herriz herri.

«Oso inguru ederra da eta esnatu eta leihotik begiratzean dena berdea ikusten dut, txakurra poz-pozik... Beste bizimodu bat da. Gasteizen, jendez inguratuta egon arren, bakarrago sentitzen nintzen. Hemen beti badut zer-bait egiteko, oiloak direla, egurra, ortua... Naturarekin lotura hau izateko beharra dut, eta maite ditudanekin elkartzeko naiz. Gauza asko egiten dira hemen: txorizoa, kontserbak, xaboi eta kremak...». Herriak bizia izatea nahi du, ez soilik lanerako, baizik eta konpartitzeko, harremanak izateko... «Batzuek ez dute ulertzen nire aukera, baina pribilegiatua naiz».

Imanol Esnaola Gaindegiko koordinatzaileak defendatu duenez, herritarrek zerbitzu hauek jasotzeko eskubidea dute eta azterlan honetan administrazioek eskualdeetan eskubide horiek bermatzen dituzten ala ez behatu dute.

2008an krisi ekonomikoa lehertu zenetik murrizketak egin dituzte, adibidez Nafarroa Garaian Gobernuak osasun arretarako hainbat baliabide ixtea erabaki zuen, eta horren eragina sumatzen da.

Hezkuntza, osasuna eta babes soziala, larrialdiak, eta bestelako

azpiegitura eta zerbitzuak kontuan hartuz osatu dituzte fitxak udalerriz udalerrri. Nafarroa Garaia eta Araba dira herrialderik kaltetuenak, bereziki Erronkari-Zaraitzu eskualdea Nafarroa Garaian eta Arabako Mendialdea Araban. Eskiulak ere, Oloroealdeko herri elkargoa osatzen duen udalerrri bakarrak, zerbitzuetarako distantzia hagitx handiak ditu. Horrek erran nahi du bertako jendeak ahalegin handiagoa egin behar duela bertan biziari eusteko. Jaso ditugun testigantzen arabera, grinarik ez zaie falta.

Nafarroa Garaia eta Araba dira herrialderik kaltetuenak, bereziki Erronkari Zaraitzu eta Arabako Mendialdea. Bertako jendeak ahalegin handiagoa egin behar du bertan biziari eusteko

Orokorrean, konektibitate onena duten eskualdeak dira jendetsuenak, Lapurdiko kostaldetik hasi eta A-8 zein N-I ardatzak jarraituz Bilbora eta Gasteizera arte


Honi guztiari neurria ongi hartzeko, Euskal Herriko biztanleria non kokatzen den jakitea komeni da. Herritarren banaketaren maparen gainean, errepi-de sare nagusiak eta trenbide ardatzak jarri dituzte ikerketan, banaketa horren bizkarrezurra direla erakutsiz. Orokorrean, konektibitate onena duten eskualdeak dira jendetsuenak, Lapurdiko kostaldetik hasi, eta A-8 zein N-I ardatzak jarraituz Bizkaiko eta Arabako hiriburuetara arte. Iruñerriak eta Tuteraldeak ere biztanleria metaketa altua dute. Dentsitate baxueneko zonaldeak, aldiz, Ipar Euskal Herriko, Arabako eta Nafarroa Garaiko zenbait eskualde dira.

Hobekien konektatuta dauden eskualdeetan garraio publikoa hobetu egiten da eta mugikortasun sarea ez da autoetara hainbertze mugatzen. Konexio okerrera duten eskualdeetan, berriz, biztanleko autoen ratioak gora egiten du nabarmen. Horren adibide dira Arabako eta Nafarroa Garaiko eskualdeak, bereziki Trebiñu eta Arabako Ibarrek.


Joan den urtarilaren 6an GARAAn kaleratu genuen bertze lan batean (naiz.eus/eu/actualidad/noticia/20170107/zuhaiztitzurako-piramidea-orekatzeko-erronka) esplikatzen genuen bezala, hau dena estu lotuta dago ekonomiarekin. Enplegu gehien dagoen lekuetan bizi da jende gehien eta konexio eta zerbitzuak ere hobeak dira. Ehun ekonomiko ahulagoko guzietan, zerbitzuen eskuragarritasuna txikiagoa da.

EUSKARA, 20 KILOMETROTARA

Hezkuntza zentron eskuragarritasunaren azterketan, Arabako Ibarrek eta Mendialdea ageri dira kaltetuenen artean, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroa Garaiko mendebaldearekin batera. Bidaxuneko, Salbaterraldeko, Iholdi-Oztibarreko eta Oloroealdeko herri elkargoetan, Erronkari-Zaraitzun, Irunberrialdean, Zangozerrian eta Estellerriko Mendebaldean, Arabako Mendialdean eta Arabako Ibarrean, batez beste 7,5 kilometrotik gora behar dira eskolara heltzeko.



ITURRIA: Euskalgeo, Ekoizpen propioa.



Txostenean jasotzen denez, zonalde hauetako herritarrak are kaltetuagoak dira euskal identitatea gordetzea eta seme-alabak euskaraz eskolaratzea erabakitzen badute. Familia eta haurrek desplazamenduetan egiten duten ahalegina gainera-koena baino nabarmen handiago da. Ipar Euskal Herrian no- zitzen dituzte, alde horretatik, distantziarik handienak. Aturri Errobiko, Bidaxuneko, Hazparneko Lurraldeko, Amikuzeko, Salbaterraldeko eta Oloroealdeko herri elkargoetan, eta Arga-Aragoiko Erriberan, 20 kilome- tro baino gehiago egin behar dira euskaraz ikasi ahal izateko.

OSASUNA, 10,9 KILOMETROTARA

Osasunaren alorrean aztertzen diren azpiegiturak ospitale pu- blikoak, administrazio zerbitzu- dun osasun zentroak, adinekoen

egoitzak eta laguntza sozialeko zentroak dira. Herrialde bereko azpiegitura hurbilenara neurtu dituzte distantziak, hauen esku- mena orokorrean herrialdekakoa izan ohi baita. Hain zuzen arra- zoi horregatik, eskaintza ez dela- ko udalerrikakoa, azpiegitura hauetarako distantziak aurreko ataletan neurtutakoak baino lu- zeagoak dira. Euskal Herri osoko batez bestekoa 10,9 kilometrota- koa da.

Orokorrean, Nafarroa Garaia ageri da kaltetuen, are gehiago Iruñerritik eta Tuteraltetik alden- du ahala. Baztanaldea, Erronkari- Zaraitzu eta Aralar Iparraldea dira zerbitzuak urrunen dituztenak.

Imanol Esnaolak azaldu due- nez, lurraldea estuki lotuta dago giza aktibitatearekin eta komuni- tatearekin. Modu orekatuan bizi- berritu behar da lurraldea eta ho- rrek eskatzen du XXI. mendeko

ongizate azpiegiturak eskuragarri izatea. Osasun eskubidea kasu ba- tzuetan auzitan dago hagitz. He- ziketa euskaraz jasotzeko eskubi- dea ere ez da bermatzen eskualde guztietan.

Zaharren egoitzen faltak norbe- re bizilekuaren inguruan zahar- tzeke eskubidea jartzen du kolo- kan. Eta gizarte zerbitzuen gabeziak zaurgarritasun egoere-

tan, hau da, egoerarik ahulenean dauden lagunak kaltetzen ditu (tratu txarrak jasaten dituztenak, pobrezia sufritzen ari direnak...). Oinarri-oinarrizko eskubideez ari garela nabarmendu du Gaindegi- ko koordinatzaileak.

LEHEN MAILAKO AUZIA

Ondorio gisa, azpimarratu du oinarrizko zerbitzuen diseinuan lurraldea biziberritzeko xedea aplikatzen ez bada, murrizketa politikek desoreka demografiko eta sozioekonomikoak ekartzen dituztela.

Horrek guztiak hurrengo ur- teei begira Euskal Herrian lur- ralde antolamenduaren auzia lehen mailan jartzea eskatuko duela aldarrikatu du, estrategia eraginkorrak bilatzeko demo- grafian bezala zerbitzuetan ere desoreka gainditu eta lurralde osoa biziberritzeko.

Osasunean, Nafarroa Garaia ageri da kaltetuen, are gehiago Iruñerritik eta Tuteraltetik alden- du ahala. Baztanaldea, Erronkari-Zaraitzu eta Aralar Iparraldeak dituzte urrunen zentroak

Imanol Esnaolak azaldu duenez, lurraldea estu lotuta dago komunitatearekin. Era orekatuan biziberritu behar da lurra eta horrek XXI. mendeko azpiegiturak eskura izatea dakar

«ZAILTASUNAK IKUSTEKO IBILBIDEA» BILBOKO GARRAIO PUBLIKOAN BARNA

Nerea GOTI

Ikusmen urritasuna duten hiru lagunekin egindako ibilbide batek guztien begien aurrean jartzen ditu garraio publikoan aurkitzen dituzten zailtasunak. Traba horiek zuzentzea eskubideak bermatzea da; «ez dio inori kalte egiten eta guztientzat da baliagarria», diote irmo.

Edonork esango luke badakiela edo imajina dezakeela urritasunen bat duten lagunek ez dutela batere erraza kalean mugitzea, ez gainontzekoen askatasunarekin behintzat, ezta gutxieneko segurtasunarekin ere. Eta hori guztia imajinatzekoa bada ere, beste gauza bat da egoera horren aurrean izan eta berau

Iñaki Cornejo, Manu Agirre eta Carmelo Berdasco Aukera Barriak elkarteak Bilboko metroan.
Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

baieztatzea. Asko, gehiegi, dira oraindik ere topatzen dituzten oztopoak; batzuk atoaan ikusten dira, beste batzuk begi bistan izan arren ez dira hain erraz antzematekoak. Urribitasun funtzionala duen lagunaren alboan jarrita arazoaren benetako dimentsioa ezagutzen da, bere azalean kokatzeko aukera da, esaten duena hobeto ulertu eta zenbaitetan bertigoa ere sentitu arteko trantzea bizitzeko okasioa, arriskua sentitu eta zuzenean ikusteko parada.

Ariketa praktikara eramane genuen Bilbon, bertako elkarte batek luzatutako proposamena jarraituz. Aukera Barriak du izena ekimen herritar horrek eta ikusmen dibertsitate funtzionala duten lagunek osatzen dute. Kalean tra-

ba asko badago ere, garraio publikoan ipini nahi dute fokua, herritar guztien erabilera ziurtatu beharko luketen hiriko eta hiri inguruetakoko garraio bideetan, hain zuzen ere.

Gabon giro bete-betean, Plaza Biribilean egin genuen hitzordua elkarteko kideekin. Ibilaldiaren lehen geldialdia Bilboko metroa bera izan zen. Ikusmen urritasuna duten hiru lagun etorri ziren euren egunerokoan bizi dituzten egoerak azaltzera. Bilboko hirigunearen bihotzetik irten gabe, oso eremu txikian egiazta daiteke egiten duten “salaketaren” marmia. Manu Agirre, Carmelo Berdasco eta Iñaki Cornejo izan genituen ondoan, beharrezko azalpenak emateko. Nabarmendu zuten, salatzea baino traba horiek



gainditzeko beharrezko neurriak hartze-ko eskaera da egiten dutena. Modu posi-
tiboan planteatzen dituzte euren zailta-
sunak, egiten duten proposamena
irisgarritasuna bermatzen joatea dela na-
barmenduz. Diotenez, eskubideez hitz
egiten ari gara, eta eskubideak jende oro-
ri izan behar ditu bermatuta.

Bilboko Kale Nagusiko espaloiak ez
dira Alde Zaharrekoak bezain estuak,
eta hala ere metro gutxitan egiaztatu
dugu zer-nolako estutasunak ager dai-
tezkeen: kartelak, paperontziak, loreon-
tziak, jarlekuak, eskean dagoen jendea,
espaloia mugak zehaztuta ez dau-
den puntuak... Ibilbide labur bat egin
ostean, “nor dago itsu?” da norberak be-
re buruari egin ahal dion galdera, hain
argiak dira-eta sortzen diren trabak.

Metroko sarbidean aurkitu dute lehen-
dabiziko arazoa Aukera Barriko lagunak.
Eskailera zein igogailua erabili, behin na-
san sartzeko unea heltzen denean, ez da-
kite norantz jo behar duten norabide bat
edo bestea hartzeko. «Zelan demontre
dakit nik Etxebarrirantz edo kontrako
noranzkoan noan?», galdetzen dute.

NORA DOA DATORREN TRENA?

Behin nasara helduta, beste arazo bat da-
go, datorren metroa nora doan jakiteko
modu bakarra dago: nasetan dauden kar-
telak eta trenetakoak, baina ezin dituzte
ikusi. Horren irtenbidea megafonia izan
daiteke, trena heldu baino lehen nora do-
an azalduko lukeen audioa. Antzeko ego-
eran daude metrotik jaitsi eta irteera bat
edo bestea aukeratu behar dutenean. In-
formazio hori ezin dute euren kabuz es-
kuratu.

Bidaiazteko txartela ateratzeko orduan
ere, arazo gehiago. Izan ere, laguntza be-
har dute txartela ateratzeko edo Barik
txartela kargatzeko, makinetako pantaila
ukigarriak ez baitaude braille hizkuntzan
eta ahots laguntzarik ere ez baitago. Nor-
malean, Barik txartela atera edo karga-
tzeko kalean dauden saltokiak erabiltzen
dituzte, baina behin metrora sartuta
txartela erabiltzean ezin dute saldoaren
gaineko inolako informaziorik jaso. Hala
ere, argi utzi dute metroan konpondu be-
harreko arazoak egon arren, beste ga-
rraiobide batzuek ez dituzten neurriak
badaudela eskura. Nabarmendu dutenez,
adibidez, nasen mugak ondo adierazita
daude, marra podosentsorial bat baitago
bidaia-ohartarazteko –zoruak marka
batzuk ditu eta horiek zapaltzean kontu-
ratzen dira itsuak espazio aldaketaz –.
Era berean, metroen barruan erabiltzen
den megafonia ere oso lagungarria da,
geltoki ezberdinen berri ematen baitu.



Goian, Cornejo, Berdasco eta Agirre, Bilboko Kale Nagusian. Alboko orrian, Bizkaibuseko ibilgailu baten ondoan, garraio zerbitzu horretan aurkitzen dituzten zailtasunen berri ematen. Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

«Dauden arazo guztiak konpontzearen eta bat bera ere ez konpontzearen artean erdibide bat dago. Planteatzen duguna da sikieran irtenbide erreza duten arazoak konpontzea», azaldu du Manu Agirrek. Azaldutakoaren arabera, metroko ardura-dunekin bildu dira, eta hori da hain zu-zen ere helarazi nahi izan dieten mezua: erraz konpontzeko moduko kontuetan urratsak egiten hasteko beharra.

Metro Bilbao bertako komunikazio arduradunek eurek jarraitu zuten Aukera Barriak elkarteko kideen ibilbidea lurpeko geltokian. Zehaztu zutenez, el-

kartearekin bildu dira eta jaso dituzte azaldutako kexak. Hala ere, argitu zu-ten Garraio Partzuergoarentzat ONCE dela erreferentziazko instituzioa arlo honetan, eta itsuen erakunde horrekin harremanetan daudela beharrezko urratsak emateko orduan.

ERREPIDEA GURUTZATZEAREN ARRISKUA

Metrotik autobus geltokietara abiatu gi-nen bertan ematen diren bestelako egoe-rak ezagutzeko asmoz, eta, bidean, espa-loian bertan dauden trabak azaldu zituzten Aukera Barriko lagunak. Makila baliatuta aurrera egiten dute, zailtasune-tara ohituta. Ondoan doanak gehiago su-fri dezake, batez ere konturatu orduko beste arazo bat aurkezten denean: «Kon-tuz, errepidean sartzen ari gara!».

Kale Nagusiko espaloi zati batzuetan ez dago oinezkoen bidea eta errepidea ez-berdintzeko markarik, biak maila berean daudelako. Leku askotan seinale podosentsorialak daude espazio aldaketaz ohartarazteko, baina espaloi tarte batzuetan ez dago horrelako seinalerik. Azaltzen dutenez, espaloien maila jaitsi egin da toki askotan gurpildun aulkien

Metroan, zailtasun nagusiak pantaila ukigarrietan garraio txartela atera edo kargatzeko orduan dituzte, baita nasa bat ala bestea aukeratzeko eskailerak hartzeko unean edota metroa zein noranzkoan doan jakiterakoan ere

Bizkaibus eta Bilbobus garraio zerbitzuetan megafonia da arazorik handiena. Azaltzen dutenez, «askotan ez dabil, eta, beste batzuetan, badabil baina ez da ondo entzuten, edota ematen duen informazioa ez da zuzena!»



erabilera errazteko, “plataforma bakarra” izeneko eredua jarraituz, baina arazoak planteatzen ditu ikusmen arloko dibertsitate funtzionala duen jendearentzat. «Kalean aurrera egiten badut eta zapaltzean inolako markarik ez badago, zelan dakit nik noiz ari naizen errepedea zapaltzen?», planteatzen dute.

Hurrengo helmuga bat finkatu zuten: autobus bat hartzea. Errepidea gurutatzeko dauden zebra bideetan dauden zenbait semaforotan ez dago ikusmen urritasuna dutenentzako seinale akustikorik. Batzuetan soinua badago baina beste batzuetan ez; eta, soinu-dun semaforoak elkarrengandik hurbilegi daudenean, «zaila da jakitea entzuten duzuna zure semaforoa den edo ondoko zebra bidekoa».

Hurtado Amezaga kalean dauden autobus geltokietara helduta, trafikoaren zaratarekin ez dago modurik jakiteko zein autobus den aurrean dagoena, zein irten-go den berehala. Agirrek, Berdascok eta Cornejok urrutiko agente baten antzeko aparatu bat ateratzen dute poltsikotik. Gailu horrek semaforoaren soinua aktibatzen du, «baina bakarrik funtzionatzen

du aktibatuta dauden semaforoekin. Semaforo guztiek ez daukate soinu hori».

Autobus geltoki guztiek ere ez dute ahots bidezko sistema hori, eta, autobus guztiek ez dute megafonia, edo, baldin badute, «beti ez du behar bezala funtzionatzen», azaldu zutenek.

ENTZUN BAI BAINA EZIN ULERTU

Geltokiko markesinaren ondoan pantaila bat dago. Horretan azaltzen da heltze-ar dauden autobusei buruzko informazioa, zein etorriko den hurrena, zenbat minutu falta diren... Gure lagunek du-

ten gailuetan informazio hori ahoz jasotzeko aukera aktibatzen dute, baina kaleko iskanbilarekin ahotsak dioena ez da batere ondo ulertzen. Beste arazo bat ere badago: markesina guztiek ez dute pantaila.

«Irtenbidea pantailak markesinen barruan jartzea litzateke. Teknikoki ez da arazo handia eta ez da kostu ekonomiko izugarria daukan irtenbidea ere», nabarmendu dute Aukera Barriak elkarteak kideek. Gaineratu dutenez, komenigarria izango litzateke braillez idatziriko informazioa ere izatea, jaki-

Kale Nagusian espaloia eta errepedea maila berean daude gurgildun aulkien erabilera errazteko. Zati batzuetan, baina, zoruan baldosa berezirik ez badago, errepedera irten daitezke konturatu gabe ikusmen urritasuna dutenak

Soinua aktibatzeke agente bat dute, baina semaforo guztiek ez dute sistema hori. Elkarrengandik oso hurbil daude zebra bide batzuk Kale Nagusian, eta «zaila da jakitea entzuten duzuna zure semaforoa den edo ondoko zebra bidekoa»

teko markesina bakoitzean zein autobus gelditzen diren, noraino joaten diren...

Autobusen inguruko entzunezko informazioa ere aktibatzen du aparatuak. Lehenengo gailua dohainik dute; hortik aurrera, 40 euro balio du horrelako gailu bakoitzak berria behar izatekotan. Beste arazo bat planteatzen du horrek, batzuetan behar denean ezin topatzea, pilarik gabe geratzea... «Autobusetan megafonia ona izatea beharrezko dugu, ez soinu gogaikarria, distortsionatua, batzuetan gertatzen den moduan. Ondo funtzionatzen duen megafoniak ez dio inori kalte egiten; mundu guztia erantzut da baliagarria, ez bakarrik guretzat», azaldu du Cornejok. Horretan, metroa, tranbia eta Renfeko aldiriko trenak eredu direla diote, baina ez autobusak.

GELTOKIA ETA URDUÑARAKO TRENA

Renfe aipatuta, Bilbo-Urduña linean irisgarritasuna bermatzeko dauden eskaerak aipatu dituzte, eta aldarrikapena erabat babesten dutela nabarmendu. Aldiriko trenen linea horren kasuan, trenera igo eta jaisteko dagoen altuera arazo handia da aniztasun funtzionala duten pertsonentzat. Ikusmen urritasuna duten lagunen kasuan, beste arazo bat ere aurkitzen dute: Abandoko geltokian badaude norabidea gidatzen duten zoru-markak lurrean, baina ez dakite nora doazen. Cornejok argitu bezala, eraikin publiko askotan maketa bat izan badute, «baina gehienetan ez dakigu non dagoen, ez dago sarre-ran leku ikusgarri batean eta orduan ezin dugu erabili».

Hainbat garraio arduradunekin bildu dira dituzten arazoak azaltzeko, baina momentuz ez dute ondorio positiborik igarri. Duela egun batzuk, Bizkaibusez izandako gorabehera ekarri zuen gogora Agirrek. «Megafoniak Zorrotza aipatu eta Autonomia kalean geunden, pentsa zer gertatzen den megafoniaz fidatu eta autobusetik jaitsiz gero!», planteatu zuen.

Agirreraren esanetan, «irisgarritasuna jendearen beharizanetara egokitu behar da: dinamikoa izan behar da». Bide hori egiten hastea ez da zaila borondatea badago, aipatzen dutenez. Horregatik mezu bat zabaltzea nahi dute: «Goazen bide hori elkarrekin egitera eskura ditugun konponbideak eskainiz».

Garraioan dituzten arazoak identifikatu ondoren, enpleguaren arloan duten egoera aztertzen duen txostena ere prestatu du Aukera Barriak elkarteak. Azken horretan jasotako ondorioak alderdi politikoei helarazi nahi dizkiete laster hasiko den kontaktu erronda batean.



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Bizitzeko toki bat

Modan dagoen hiri batean bizi naiz. Ez da nik diodalako, Udalbiltzak eta Gasteizko Udalak eskatuta egindako azken ikerketaren ondorioek diotenez ere, Gasteiz omen da hiri morfologia orekatuena duen euskal hiriburua [<https://goo.gl/bPSRZu>]. Leihora hurbiltzea baino ez dago ikusteko. Ez justu ni bizi naizen tokian, hemendik parez pare dudan eraikina baino ez baita ikusten. Galdetu Eguberriak oporrak bazterrok bisitatzeko aprobetxatu dituen edonori nahiago baduzue. Hotz egiten duela? Ados. Baina non ez du ba hotzik egiten azkenaldian? Inguruetako urtegien eraginez behe lainoa egunetan aldetik kendu ezinda ibiltzen garelako sarritan? Konforme. Baina non aterako dizute hemen baino ardo hobeagorik laurogeita hamar zentimoan barruak berotzeko? Badakit hondartzarik ez daukagula, baina Denis Itxasorik ere ez, zorionez. Goiak, aldiz, aukeran. Eta zer esan Florida parkean urtero jartzen diguten tamaina errealeko irudiz osatutako belenari buruz, edo Andra Mari Zuriaren enparantzan hiru euroren truke eskaintzen dizkizuten laranja zuku, kruasan eta kafearen inguruan. Nekez aurkituko duzu horrelakorik gainontzeko hiriburuetan.

Jendarte likidoa da gurea ere, bi muturren arteko oreka-desorekan bizi dena. Surrealista xamarra ere bada bizimodua hemen batzuetan. Dato kaleko Goya gozotegi mitikoan baskitoz eta neskitaz osatutako bonboi kutxa bat eros dezakezun moduan eskura dezakezu Juanma Bajo Ulloaren Goya bat *cash converter*-en bost mila euroren truke [<https://goo.gl/NGZ3rh>]. Baditugu jendez okupatutako hutsik zeuden auzoak eta badi-tugu txaletez okupatutako auzo hutsak. Badauzkagu Udalaren utzikeriaren gainetik frontoiak berreskuratu dituzten auzoki-deak eta haien lekuan kafe antzokiak eraikitzearekin tematuta dauden alkateak [<https://goo.gl/xMEGfo>]. Eta hori ere euskararen hobe beharrez, noski. Zer gutxiago merezi du ba euskarak liskar apur bat baino? Badira hiria gobernatzetik Madrilen nor izatera ailegatu diren ugari, eta hiria gobernatzeko Madril gurago duten beste hainbeste. Jendarte likidoak hori baitauka, harrapatu aurretik eskuetatik ihes egiten dizutela gauzek, eta baita pertsonen ere. Zer esanik ez hitzek. Gehiago hemen, ibaiak asfaltoaren azpitik doazen hiriburuan, ubideak ikusi ere egiten ez diren lekuan; konturatu orduko desager daiteke bat lurpeko arterietan barrena.

Yin eta yang ezinezko horretan bizi gara. Ez dakit Gu bat osatzen dugun ere. Baina elkar bizi dugu, eta maitatu ere bai uzten digutenean. Ez daukagu auzokideen txakurrek egunero etxe parean sortzen dituzten txiza-errenkadak aguantatzea besterik. Hizkuntza ezberdinetan mintzo gara; batzuetan elkar ulertzen dugu, eta besteetan nahiago dugu bestearenera makurtu egoera gehiegi ez tenkatzearren. Munduko patata-tortilla handienarekin errekorra hausteko zorian izan ginen aspal-di ez dela, baina ez genuen opil erraldoiari behar den moduan buelta ematerik lortu azkenean. Saskibaloia maite dugu baina ez daukagu euskalkirik. Joxe Felipe Auzmendi ekartzen dugu megafonotik Baskoniaren partidak animatzeko eta iparralderagoko mendialdeko mohikanoak andanaka euskararen salbatzera. Arnasgune gutxi, baina eraztun berde alimalekoa, birikak aire garbiz hauspotzeko. Zorionsu gara, gure artifizialtasunean.

Noizean behin haserretu ere egiten gara, eta eztabaidatu, eta berriro adiskidetu gero berriz etsaitzeko. Bizitzaren ziklo naturala bizi dugu finean. Horixe dauka gure oreka morfologikoak, harresiz betetako hiribildua izan arren, laua dela bere azalera. Eta horrek, nahitaez, erlazioak errazten ditu. Aurrez aurre jartzen gaitu denok. Nahiz eta ezkutatzeko lekuak ere badiren; inoiz inor ikusi nahi ez baduzu, inoiz inork ikusi ez zaitzan bost mila euroan erositako brontzezko Goya estatuatxoa eskuetan etxerantz zoazenean, esaterako.

Hiriaren morfologiari azaletik begiratzten dionak gauza bat du kontra: ez ditu tolesduretan gordetzen diren pertsonak ikusten. Horrela hasten dira hirietako biztanleak eraikinen arteko arrakaletan diluitzen, bizitza politikotik behin betiko desagertzera. •



Jendarte likidoa da gurea, bi muturren arteko oreka-desorekan bizi dena.

GAUR8

{ koaderno } **Garazi Goia**

Liburuak, liburuak, liburuak

Agatha Christiek berrehun liburu irakurtzen omen zituen urtero; Theodore Roosevelt presidenteak egunero liburu bat; eta, agidanez, denen aurretik, errekor guztiak hautsiz, Harriet Klausner, Atlantan bizi zen liburuzain eta kritikari amateur bat dago: Amazonen hogeita hamaika mila libururi buruzko kritika egin zuen eta behin baino gehiagotan egun bakar batean sei liburu irakurtzera iritsi omen zen.

Estatistika batzuekin jarraituz, Erresuma Batuan orduro hogeita liburu argitaratu omen ziren pasa den urtean. Eta, espazio honetan idazten daramatzadan hiru urteetan egin dudana moduan, urte hasieran balantze literario xume bat egiteko aitzakia ona dela datu hori otu zait.

2016. urtean izandako ekarpenei erreferentzia eginez hasiko naiz, Erresuma Batuko liburu salduenen zerrendari errepaso bat emanez. JK Rowling dago lehenengo postuan, Harry Potterren azken abenturak kontagai dituela. Argitaratu zenetik zazpi hilabete baino pasatu ez direnean, Erresuma Batuan bakarrik 1,5 milioitik gora ale saldu ditu. Bigarren postuan, Paula Hawkingen “The girl on the train” dago, urte amaieran zinemara ere eramana eta mundu osoan zehar arrakasta izugarria izan duen liburua. Bitxia iruditutako osasuntsu mantentzeko hamabost minututan prestatu daitezkeen otorduen bilduma zerrendan hirugarrena dela ikustea. Haurrentzako hiru liburu ere bazeuden zerrendako lehenengo hamar postuetan.

Liburu aski ezberdinak azaltzen dira noski, kritikarien eta irakurle sutsuen gustukoenen artean. Niri oparitu dizkidaten (eta tamalez oraindik apalean zain ditudan bi liburu), zerrenda horietako batzuetan azaltzen dira: Mohsin Hamiden “Exit West” Brexitaren osteko lehenengo nobela; eta Sarah Bakewellen “At the existentialist café”, existenzialismoari buruzko kontaketa umoretsua, laburpenean dioen bezala, Jean-Paul Sartre, Simone de Beauvoir eta Albert Camusek abrikot koktelak edaten ari ziren bitartean sortu zuten filosofiaren deskribapena.

2017. urteari begira, Paul Austerren hurrengo nobelaren zain daude liburu denda eta kritikariak; idazle estatubatuarrek azken zazpi urteetan argiratzen duen lehe-

nengo nobela izango da. Urtarrilaren amaieran izango dugu eskuragai Erresuma Batuan “4 3 2 1” izenburudun fikzio lana. Lau bizitza paralelotan oinarrituta, eta, Faber argitaletxearen hitzetan, «ondareak, bizitzako aukerak, maitasunak eta bizitzak berak ematen dizkiguten pozei buruzko kontaketa epikoa». Zortziehun orritan zehar Austerrek inoiz idatzi duen fikzio lan hoberena dela esatera ausartu direnak ere badaude. Haruki Murakamiren “Men Wihtout Women” ere argitaratuko da, izenburuak iradokitzen duen moduan ezkongabe dauden gizonezko ezberdinei buruzko ipuin laburren bilduma.

Lehen aipatu dudana Hawkinsen arrakastaren ondoren, bere hurrengo lana ere prestatzen ari omen da idazlea, familia bateko sekretuetan barrera eramango gaituen suspense psikologikoko lana izango da antza, udara aldean argitaratuko dena.

Eta amaitzeko, liburuei buruzko istorio eder bat. Galesen, Camarthen eskualdeko herri txiki batean, duela hiru

Harriet Klausner Atlantan bizi den liburuzain eta kritikari amateurra da. Amazonen hogeita hamaika mila libururi buruzko kritika egin du eta egun bakar batean sei liburu irakurtzera iritsi omen da

hilabete ekimen bat hasi zuten, irakurketa bultzatzeko helburuarekin. Liburuak paketetxo batean sartu eta zuhaitzean, etxeetako sarreretan, farolen azpian eta herriko beste txoko batzuetan uzten zituzten. Baldintza bakarra, liburua aurkitzen zuenak, irakurri eta berriro ere gauza bera egitea zen: liburua paketetxo batean sartu hondatu ez zedin, eta berriro ere nonbait ezkutatu. Liburuak errazago aurkitu ahal izateko mezuak uzten zituzten sare sozialetan, ekimenari buruzko oihartzuna oraindik gehiago zabalduz. Herriko eskolako haurrak ere ilusioz hasi dira “jokoan” parte hartzen eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzen lagundu duela diote irakasleek. Laurogei liburu daude eskuragai.

Ez dira Agatha Cristiek edo Roosveltek adina liburu irakurtzera iritsiko, baina liburuaren inguruan ilusioa piztea lortu dute. •

«Baloia jokoan jarri bezain laster hemen ez dago genero desberdintasunik, jokoa baino ez dago, lehiakortasuna»

Urniatarra da Juanjo Arregi (1964), euskaldun berria, lagunartean euskara aditu du bizitza guztian eta ulertzeko gaitasuna eman eta hitz egiteko gaitasuna eskuratu arte buru-belarri jardun da. Datu horrek markatzen du Juanjo Arregiren izaera, hutsuneak gaitasunez betetzeko bidean konstantziaz ikasi eta fintasunez lan egiteko joera baitu betidanik, koherentziarena, harrokeriarik gabe harrotasuna iparrorratz izanda. Hori da bere hurbilekoei egindako galdera batetik ondorioztatu dugun sentsazio nagusia. Zeharka begiratzeko dio argazki kamerari eta momentua izozteko Urnietan maite duen paisaia harritsua hautatu badu ere, mendia behar du berak bizitza zentzuz betetzeko, belarra, zelaia; eta berdeari gainean baloi bat jarriz gero, orduan aurkitzen da bere elementuan, pozarren.

Lanbidez obretako zaindaria bada ere, pasioz futboleko entrenatzailea da eta uneotan bere kargu da Euskal Herriko emakumezkoen selekzioa. Ez dago elkarriketetara ohituta hala ere; batetik, bere zereginetan murgildua bizi delako, eta, bestetik, hedabideek gutxitan elkarriketatzen dituztelako emakume kirolariak, berdin du zein diziplinetan, eta, noski, are gutxiago haien entrenatzaileak. Deigarria da elkarriketa guztian nola hitz egiten duen, ez baitu zehazten aipatzen dituen protagonistak emakumezkoak direnik; haiek osatutako selekzioak eta klubak kirolari bezala aurkezten ditu Juanjo Arregik, jokalaria bezala, diren bezala.

Ezagutzen ez zaituen publikoari nola aurkeztuko zenioke zure burua?
Nire etxea aurkeztuta lehenik eta behin. Lau gara bertan; Laura, Ane, Agate eta ni. Naizenaren ezinbesteko zatia da etxea, ni egiten nauena.
Ondoren entrenatzaile zergatik naizen azalduko nioke nire berri izan nahi duenari, hasta-

JUANJO ARREGI EMAKUMEEN EUSKAL FUTBOL SELEKZIOKO ENTRENATZAILEA

Urniatarra da. Lanbidez, obretako zaindari.
Pasioz, futboleko entrenatzaile. 2015az geroztik emakumezkoen euskal futbol selekzioko entrenatzailea da Juanjo Agirre, poz handiz eta tamaina bereko arduraz janzten duen kargua.

Jon GARMENDIA

penak gogora ekarriz. Laguntzaile gisa hasi nintzen Groseko Kirol Elkartean, lagun bati laguntzeko asmoz. Gustuko nuen, beraz, Gipuzkoako entrenatzaile eskolan sartu nintzen eta pixkanaka tituluak eskuratzen hasi. Ikasten nuen bitartean Urnieta Kirol Elkarteko (UKE) futbol taldea entrenatzen hasi nintzen; uste dut kategoria guztietatik pasa nintzela, eta, orain dela gutxi, talde mistoarekin laguntzaile gisa jardun naiz. Añorgako entrenatzaile izan nintzen, oroitzen ederrak utzi dizkidan kluba, eta eskertu nahi nituzke nirekin lan egindako Jony eta taldea zuzentzeko aukera eman zidan Iñaki Anso.
Getariako Felipe Garmendiak eskaini zidan Euskal Seleksioan aritzeko aukera, Arantza Del Puertoren zuzendaritzapean. Felipe 16 urtez azpikoen entrenatzailea zen eta bere laguntzaile hasi nintzen, 18 urtez azpikoen kargu egin ginen gero, eta selekzioa utzita formakuntzarekin jarraitu nuen, bidena-bar Gipuzkoako entrenatzaileen eskolan irakasle arituz. Maite Redondoren eskutik 12 urtez azpikoen selekzioaren entrenatzaile bihurtu nintzen eta ondoren 18 urtez azpikoena. Txusmirekin selekzio nagusian aritu nintzen gero.

Eta emakumezkoen selekzioaren entrenatzaile izendatu zintuzten azkenik. Zer sentitu zenuen?
Euskal Federazioan zaudenean, 18 urtez azpikoen kargu baldin bazaude, 16 urtez azpikoen prestatzailearekin batera selekzio nagusiaren ardura zuregain gelditzen da; horrela, 2015eko Eguberrietarako Bartzelonan Kataluniaren kontra jokatu beharreko partidaz arduratzeko eskatu zidan Federazioak. Has-tapen batean, poza sentitzen duzu, jokalaria onenekin lehiatzeko aukera tentagarria baita. Gero arduraren pisua eta ga-

rrantzia neurtzen dituzu, kolo-reak babestu eta zure herria ordezkatzeko ez baita arinkeria, taldea dago, giza harremanak, beraien artean oreka eta giro ona egon dadin saiatzea... Hori bai, bihotzez esaten dut erabat hunkigarria dela selekzioaren ereserkia futbol zelaian entzutea. Askotan ikusi duzu telebis-tan eta abar, baina, han, zelaian bizitzeak harrotasuna piztu eta bihotza ukitu zidan.

Nongoak dira egungo jokalaria, zein taldetatik datoz?
Hiru klub dira nagusiki egungo Euskal Seleksioaren hornitzaile, hau da, Athletic, Real eta Oiarzun. Gaur egun Espainiako Lehen Mailan hiru euskal talde horiek jokutzen dute, eta hori sekulako lorpena da gurea bezalako herri txiki batentzat. Txikian handi. Seleksioan jokatzen dutenen jatorria, aldiz, anitza da, hiriko eta herriko, gure herriaren aberastasuna erakusten duena: Iruñea, Donostia, Gasteiz, Bilbo, Getxo, Bergara, Legazpi, Barakaldo, Funes, Audio, Lezo... Nafarroa Garaia, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia daude ordezkaturak. Hori bai, Ipar Euskal Herriko hiru probintzietan egiten ari den lanari begi bat ezarrita diogu, etorkizunean selekziora eraman ditzakegun jokalarien zerrenda handitzeko nahia baitauek.

Zehazki, zertan datza zuon lana?
Hitz batekin definituko bagenu, begiralea izatea da lehen pre-misa. Lehen Mailako zein Bigarren Mailako partidu gehienak ikusten ditugu, hurbiletik jarraitzen dugu jokalarien lana, haiekin hitz egiten dugu, beraien taldeekin... Komunikazioa iraunkorra da, zuzena, harremanak baititu orube gure betebeharrak. Askotan gertatzen da azken momentuko arazoek eragozteko jokalaria baten parte hartzea, eta prest egon behar dugu haren orde-



Argazkiak: Laura MINER

koa aurkitzeko. Ohoragarria da jokalariek guztiek agertzen duten prestutasuna selekzioarekin jokatzeko, eta berdin mingostasun izpi ere, ezin baitute denek joan: ezin ditugu nahi genituzkeen guztiak eraman, baina, aukera bera dutenez, hurbiletik jarraitzea ezinbestekoa da. Talde tekniko delegatuak, medikuak, material arduradunak, fisioterapeutak, atezainen prestatzaileak eta taldearen arduradunok osatzen dugu.

Etorkizuneko belaunaldien ispiluzarete, erreferentzia bat.

Entrenatzaileak behar ditugu; gaur-gaurkoz horretan ari gara lanean, titulua duten prestatzaileak izateko, jokalarien kalitatea ere hobetzea ekarriko baitu horrek. Nik nire apurra jartzen dut, azpitik gorako bidean kategoriatan eta talde guztietan kalitatezko jokalariek egon daitezkeen. Etorkizuneko beharrez etorkizuneko pertsonak arduratuko dira,

«Hastapen batean, poza sentitzen duzu, jokalariek onenekin lehiatzeko aukera tentagarria baita. Gero arduraren pisua eta garrantzia neurtzen dituzu, koloreak babestu eta zure herria ordezkatzeko ez baita arinkeria»



guretik zerbait baliatuta –gutxi, oso gutxi pentsatzen dut– eta balore berriak ekarri eta landuz.

Bertako futbolaz gain kanpoko ere jarraitzen duzula kontatu digute...

Orokorrean futbolaren jarraitzailea naiz, Amerikakoa eta Europakoa segitzen ditut batez ere; aurten Herbeheretan jokatzen da Eurokopa, beraz, aukera ona da hara gerturatu eta partidak ikusiz gozatzeko. Bestalde, etsenplu gisa, Paris Saint Germain taldean jokatzen du Athleticeko Irene Paredes jokalaria ohiak, maila handian. Frantziako Ligan lehen postuan daude, eta Txapeldunen Ligako azken laurdenetarako sailkatuta; derriortuta sentitzen naiz haren urratsak jarraitzeraz.

Gero, itsasoz bestaldeko lurretan gertatzen dena dago, deigarria bezain aipagarria da adibidez Ipar Amerikako futbola; AEBetakoak dira egungo mun-

duko txapeldunak, eta haiek dira aitzindariak futboleko parekidetasuna eskatzen, baita lortzen ere. Emakumezko jokalariek gutxi batzuek gizonenak baino soldata hobea dute gaur egun, eta gehiagok izan beharko lukete lekua zerrenda horretan, azken batean gizonenak baino erakargarritasun handiagoa baitu publiko aldetik emakumezkoen ligak. Jokoa ere ikusgarriagoa da. Beraz, zergatik ez horrela aitortu?

Baina, hemen, emakumezko jokalarientzat posible da futboleko jokatzetik bizitzea?

Ez dakit jokalariek irabazten dutena asko den ala gutxi den. Zehatzago esanda, ez dakit zer diru irabazten duten, dakidana da ikasketak oso presente daudela elkarrizketak ditugun bakoitzean; beraientzat oso garrantzitsua da formakuntza, futboletik aparte egiten dutena. Hau da, uste dut futbolariek laguntzen die-

la erosoago eramaten gaur egungo bizitza, baina denek dakite ez dutela futboletik lortutako diruarekin bizitzerik, ez orain eta ez gero, beraz, pasio gisa bizi dute hau dena, gozatu egiten dute jokatzeko, eta alde horretatik ederra da gure arteko harremana, elkarbizitza ere askoz errazagoa da. Gero, bada, kit bultzada bat izaten ari dela momentu hauetan emakumezkoen futbola, atzeko edo ezkutuko tokietatik atera eta bistara, agertokietara eramateko, baina ezezaguna zait horrek zertan dakarren hobekuntza jokalariek bakoitzaren egoerari dagokionez.

Hala ere, ez al duzu irudipena emakumezkoen gizonenak baino ahalegin gehiago egitea eskatzen zaiela? Nolabait, ehunetik berrehun eman behar balute bezala...

Inor ez da gai halako mailarekin aritzeko. [Irriz aipatzen du]. Honetan zabiltzanean, jokoa,



«Diskriminazioaz, parekidetasunaz, asko hitz egiten da, baina ni ez naiz hor sartzen. Gizatalde bat dut nirekin, jokalariai dir, eta horretan ahalik eta ongien egin dezaten saiatzen naiz»

lehian, badakizu egun hobeak eta txarragoak daudela, zure errendimendua ez dela beti desio duzuna, batzuetan asko saiatuagatik ere huts egiten duzulako. Gainera, gero eta exijentzia maila handiagoa dago, lehiakortasun handiagoa; maila hobetzen doa bai Espainiako Lehen Mailan, bai Bigarren Mailan, bai Euskal Ligan... Baloia jokoan jarri bezain laster hemen ez dago genero desberdintasunik, jokoa baino ez dago, lehiakortasuna. Gero, has gaitezke batzuen eta besteen iritziaz mintzatzen, zer esaten duen batek toki batetik eta zer erantzuten duen beste batek bestetik... Diskriminazioaz, parekidetasunaz, asko hitz egiten da, baina ni ez naiz hor sartzen; gizatalde bat dut nirekin, jokalariai dir, eta horretan ahalik eta ongien egin dezaten saiatzen naiz, nik zer hobetu ahal dudan ohartzen, eta, gero, nola ez, haiei eskaintzen.

Eta badago desberdintasunik gizonezko eta emakumezko jokoen artean?
Interesgarria da galdera hori. Nik, behintzat, ez dakit ba ote dagoen ala ez, ez baitut desberdintasunik ezagutu. Eta urte an-dana da jada honetan nabilela! Jokalariai manera berean entrenatzen ditut sexu bateko izan edo besteko, ez dut batzuentzat lan egiteko manera bat erabili

eta besteentzat beste bat. Teknika teknika da, taktika taktika den bezalaxe. Alboko sarea ongi egiteko baloia eta besoak buruz gain altxa eta hankak geldirik eduki behar dira; baloia geldirik dagoenean kolpe guztiek lanke-ta bat behar dute; defentsa edo erasoko lana intentsiboki egin behar du edozein jokalariai bal-din eta futboleko ongi aritu nahi badu; beraz, entrenamen-dua premiazkoa da gauzak ongi egiteko. Askotan entzuten da “entrenatzen den bezalaxe jokatzen da” esaldia, baina ohar-tu behar gara batzuetan entrenatu ez dituzten gauzak ere exijitzen dizkiegula jokalariai.

Komunikabideek emakumezkoen eta gizonezkoen futbolari eskaintako tratua zeharo desberdina da...
Bai, ilargia eta eguzkia bezala, ez dut zalantzarik. Zerbait aldatzen ari da bestalde, babesle handien agerpenarekin. Telebistako kanal batean Lehen Mailako hiru futbol partida botatzen dituzte orain. Sare sozialekin, eta beste zenbait informazio iturri alternatiborekin, hutsunea betetzen hasi da; egia da ez dela beste edozein joko edo txapelketarekin alderatu ahal, astakeria bat dela kasu askotan eskaintzen dena, baina ohar-tu behar gara bestalde telebista kate edo in-formazio iturri handiak jende

jakin baten esku daudela, gutxi direla asko dutenak, eta haiek agintzen duten artean aldaketa gutxi etorriko dela hortik.

Eta publikoak? Badu interesik?
Lezamara partidak ikustera joaten da jendea, baita Zubietara ere, Karla Lekuonan edo Añor-gan jendea dago beti. Kontua ez da zenbat jende dagoen, kontua da jendeak futbola maite duen ala ez, hori da inportantea. Nik zale askorekin hitz egiten dut, eta hurbiletik jarraitzen dituzte lehiaketak, badakizkete jokala-rien izenak, nork nor fitxatu duen... Jende gehiago nahi du-gu? Politika da zelaia beteta ikus-tea, baina ez zait hori garrantzi-tsuena iruditzen.

Duela gutxi jokatu da gizonezkoen selekzioaren partida San Mamesen eta publikoaren eskasiak hautsak harrotu ditu.
Triste da Eguberriko partidari gertatu dena, hain jende gutxi ikustea harmailetan... eta moti-boak asko izan daitezke, eztabai-da ireki da, badago zer hobetu noski, baina jende askok egiten du lan halako partidu bat aurre-ra ateratzeko, eta denek ezar-tzen dute euren onena. Hobet-zeko bidean dozenaka aukera daude, adibidez baita partida to-kiz aldatzea ere, Ipuruan egitea, Mendizorrotzan, ezohiko lekue-tan, normalean horrelako parti-

duak ikusteko aukera ez duenak etxetik gertu ikus dezan...

Zuek Irlandan ibili zarete.
Azaroaren 26an jokatu genuen Dublineko Tallaght Stadium ederrean, Irlandako Errepubli-karen aurka, FIFA rankingean 30. postuan dagoen selekzioa. Euskal Selekzioak jokatzen di-tuen partida guztiak bezala, gar-rantzitsua zen oso, lehiatzera atera ginen, jakina, eta irabazte-ko ahalegina egitera, baina hasieratik aldapa gora jarri zitzaigun partida, zaila zela ikusi genuen. Hala ere, jokalariai ke-menak eta adoreak zailtasunei buelta ematea lortu zuen; amaieran galdu egin genuen, eta alde horretatik triste itzuli ginen, baina erakutsitako jarre-rarekin pozik. Hori da garrantzi-tsuena. Bestalde, gure herriare-kin geografikoki antzekotasun asko dituen tokia da Irlanda, be-re berde horrekin, eta edertasun hori ere ekarri genuen bueltan.

Eta ofizialtasuna?
Ni entrenatzailea naiz, beraz, alde horretatik gutxi dakit dau-den aukerez edo egin beharre-koez. Beste gauza bat da nik neuk nahi nukeena: gure herria ofizialki lehiatzen ikusi nahiko nuke, Eurokopa, Mundialean, gure koloreak erakutsi eta de-fendatzen. Ea ikusteko aukera-rik dudana, oxala!

«Triste da gizonezkoen selekzioa Eguberriko partidari gertatu dena. Motiboak asko izan daitezke, baina hobetzeko bidean dozenaka aukera daude. Adibidez, partida tokiz aldatzea»





Jon URBE | ARGAZKI PRESS

IKUSMIRA

MENDI TONTORRERA IGO ETA ASMO BERRIAK HAIZATU

Urtea ez da hasi zaharra, baina akaso urte berriaren asmo berriak nahi baino azkarrago zahartu zaizkigu. Badaukagulako asmo berriak azkarregi gastatzeko joera. Presak arrastaka eraman gaitzan uzten dugu, atzera begiratzen atrebitu gabe, utzi dugunaren pena ez izateko.

Haurrak galtza estreinatu berriak zulatzen ditu maiz, gozamenaren gozamenaz. Era horretako zuloek ez dute zulorik egiten sabelean, egin gabe utzitakoen penarik ez dagoelako. Baina bestelakoa da estreinatu berria den urteari zulotxo bat egitea. Hanka okertu duenak urtea oso aldrebes hasi duela pentsatu du; gripea harrapatu duenak 2017ari leporatu dio errua; ospitaletik atera ezinik dabilena kalean urte berririk ez duela zapalduko pentsatuz tristatu da.

Akaso norbaitek pentsatzen zuen urte berriak berez ekarriko zituela pozak, besterik gabe. Paretako egutegia aldatuta egun zaharren karga arinduko balitz bezala. Baina urte berriak konpondu gabeko arazo zaharrak dakartza askotan poltsikoetan.

Astebururo igo beharko genuke mendi tontorrera, urteko asmo berriak baino, eguneko asmo berriak haizatza eta elkarrekin topa egitera. Beti baitago motiboren bat topa egiteko. Eta ez badago, topatu egin behar da. amagoia.mujika@gaur8.info



Unai
ITURRIAGA

iRRITZIA:

ZERGATIK ETORRI
GARA AURTEN BERRIRO
BILBORA, AITTE?



BADAKIZU MIKEL ETA
BESTE HAINBAT ETXETIK
URRUN DADELA, EZTA?
BA, HORI SALATZERA
ETORRI GARA.



BAINA HORI IAZ
ERE SALATU GENUEN,
EZTA, AITTE?



ETA...
IMAJINATU, E, AITTE!...
URTERO-URTERO ETORRI,
ETA SALATU ETA SALATU,
ETA GERO BERRIRO ETORRI
ETA BERRIRO SALATU...
ETA HALA ERE INORK
KASURIK EGITEN EZ BADU...
ZER EGITEN DA
GERO, AITTE?...
E, AITTE?

GALDERA ONA,
UME.



zugaz/
art

#SalatzenDut

Agenda

Joxean Agirre

Agendarik gabe ez gara ezer, ez gara inor. Urte sasoi honetan oparitzen zidaten bat edo erosten nuen bestela, lodia, larru itxurako azalarekin. Han apuntatzen nituen laneko hitzorduak ez ezik, irakurri beharreko liburuak, autoan etortzen zitzaizkidan burutazioak edo zirriborra nitzakeen nobela baten hasiera ezberdinak.

Hura besapean nuela ateratzen nintzen egunero etxetik eta auzoko andre jubilatuak pentsa zezakeen «badoa kazetaria, auskalo nor izango duen elkarriketatzeko zain». Ez dakit zer zuen agendak, baina neuri ere halako segurtasun bat ematen zidan, euskarri bat: zenbat eta beteagoa eguneko orrialdea, beteagoa ikusten nuen bizitza. Gazteagoren batek «orain primeran biziko haiz, agendarik gabe», esaten didanean baietz erantzuten diot, apaltasunagatik, baina

barru-barruan pentsatzen dut: ««inozoa, ez dakik bizitzari buruz gauza handirik. Ikusiko duk urte berri bat hasi eta egutegia hutsik ikusten duanean».

Urte batzuk badira ez dudala agendarik. Zertarako? Ez daukat laneko konturik apuntatu beharrik eta gutxiago emakumeekin hitzordurik. Fraide bizimodua daramat. Apunta nezakeen lasai asko «goizeko bostetan jaiki eta matutiak kantatu». Aurten ere urteko eginkizunak Euskadiko Kutzaren egutegi txiki batean kabituko zaizkit: urteko lauzpabost manifa handienak markatu, seme-alaben urtebetetzeak gorritz jarri (emazteak berak gogaraziko dit). Mahastia inausten hasi. Gure Esku Dagoren hurrengo bilera noiz den enteratu. Idazten ari naizen nobela ekainerako bukatu edo urtebete luzatu, katuak saguarekin bezala entretenitzeko zerbait izan dezadan. Maiatzerako

aste eta erdiko oporrak antolatu merke-zurrean. Udako hiru hilabeteak taularekin itsasoan ibili eta norbaitek ea surfa egiten al dudan galdetzen badit, haserre begiratu. Irailerako Katalunian egun batzuk pasatzeko modua egin, erreferenduma bertatik bertara ikusteko. Nobela ateratzen badut, abenduan Durangoko Azokara joan eta goiz batean lau ale sinatu.

Norbaitek esaten badit hain egiteko gutxirekin ere bizitza bat bete daitekeela, ez diot kontrakorik esango, baina nostalgia pixka batekin jarraituko dut gogoratzen agenda lodia besapean nuela etxetik ateratzen nintzen garai hura, egiteko ditugun zereginak justifikatzen baitute existentzia. Hiltzeko zorian zegoen baserritar aitona harekin gogoratu naiz: «hainbeste lan baserrian bukatu gabe utzita joan behar al dut?». •

Konpromiso politikoaz

Saioa Iraola

Pertsonok, nor bere kasa, laguntzarik gabe bizi gaitezkeela sinetsi izan dugu XX. eta XXI. mendeko herrikideok. Baina pertsona harremanetan dago etengabe bere inguruarekin eta ingurukoekin, ez da existitzen harremanik gabe. Horregatik, jendartean hiritar oro da partaide; bizitza, elkarrekin egiten da, elkar behar baitugu, eta, hortaz, jada engaiatuta gaude jendartean.

Mendebaldeko jendartean bizi dugun prekarietateak eta zaurgarritasunak aukera eskaini digu elkarren arteko interdependentziaz ohartzeko.

Horrela, azkenaldian modan ez dagoe-la diogun arren, konpromiso politikoren inguruko beste ikuspegi bati bide eman nahiko nioke, Marina Garcés filosofoaren ideietan oinarrituta. Alegia, konpromiso politikoa ez du izango soilik intelektual konprometituak edo militanteak; herritar oro badago konprometituta, bizitzeak bere horretan eta komunitatean bizitzeak are eta gehiago, bestearekiko ardura izatea dakar eta hori engaiamendua da.

Norbaitek uka lezake hori, baina hor dago. Horrek aukerak eskaintzen ditu politizazioa areagotu eta praktika politi-

koaren iruditegi politiko tradizionala zabaltzeko. Horren adibide izan litezke XXI. mendean sortu diren politizazio modu berriak: kontsumitzeko eta ekoizteko beste era batzuk planteatzen dituztenak, enpleguaren inguruan birdefinizio berri batetik lan egiteko eta antolatzeko manierak sortzen ari direnak, merkantilizazioa saihesteko diruaren truke lan egitea kuestionatu eta beste formak batzuk aurkitzen ari direnak...

Bizitzaz birjabetzeko nahia dugun unetik, badugu konpromisoa, beraz, ukatu beharrean, onartu dezagun eta erabaki. •



Maidar Oleaga, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean «Iragan gunea. Berlin» filma aurkeztu baino lehen. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

infraganti MAIDER OLEAGA

Gaztetan aktorea izan nahi zuen, baina zinema aktoreak baino gehiago dela konturatu zenean, asmo hura baztertu eta zuzendaritzari eta gidoigintzari heldu zien. «Iragan gunea. Berlin» filma egin ondoren, aspaldiko proiektu bat bukatzeko asmoa du Elbira Zipitriaren arrastoari jarraituta: «IRA 26-2», dokumentalaren eta fikzioaren arteko lana.

Bilbotarrak nahi duten lekuan jaiotzen omen dira. Hala izatera, Maidar Oleaga ere bai, baina polemikazalea izan ez, nonbait, eta Bilbon bertan jaiotzea erabaki zuen. Hala ere, Gasteizen bizi izan da hiruzpalau urte zituenetik Iruñera unibertsitate ikasketak egitera joan zen arte. Lauzprobost urte Madrilén eta zazpi Mexikon eman ostean, Donostia-ra jo zuen eta hantxe bizi da egun. GAUR8k Gasteizen topatu

du, ordea. Bertan bizi dira haren gurasoak, Jesus eta Esther, dagoeneko erretiroa hartuta, 70eko hamarkadaren bukaeran Haiztogile kalean Anboto Oleagarena taberna eta ondoren Oleaga jatetxea zabaldu zituztenak. Maidarren anaia Hasier ere, konpositore eta bateria jotzailea, sobera ezaguna da. Hainbat disko argitaratu eta talde eta abeslari handi ugarirekin jo eta grabatu izan du.

Alde zaharrean elkartu gara, 16:30ean, bertan dagoen Oihaneder Euskararen Etxean “Iragan gunea. Berlin” bere azken

filma emango baitute iluntzean, Maiderrekin berak aurkeztuta. Filma, iazko Donostiako Zinemaldirako hautatua, ETBk proposatuta egin zuen. 2016an Jose Antonio Agirreren Gobernua sortu zeneko 80. urteurrena zela eta, lehendakariak Ameriketara idatzi zuen “Gernikatik New Yorkera Berlinetik pasatuz” laneko lau hiririk garrantzitsuetan dokumental bana filmatzea erabaki zuen ETBk: Gernikan, Parisen, New Yorken... «eta niri egokitu zitzaidan Berlinen», dio Maiderrekin. «Bakardadea, leku arrotzera

ohitzea, migrante edo eta iheslari gisa bizitzea zer den» erakutsi nahi izan du. «Agirrek hiru hila-bete eta erdi eman zituen Berlinen, Bigarren Mundu Gerra betebetean, identitate faltarekin, Ameriketara eramango zuen barkuaren zain. Ez zekien alemanez, familia Belgikan zuen... eta, egoera horretan, egunkari bat idatzi zuen», kontatu du. Egunkari hori irakurri eta esanguratsuak irudituz zitzaidakion gauzak barneratu zituen Maiderrekin; esate baterako, Agirrek maiz aipatzen duen bakardadea edo itxaronaldiko ezinegonak Siriako errefuxiatu bat, Alemanian denbora luze daraman Kurdistango emakume bat eta bi euskaldun dira. «Atzerritarrek, iheslariak, Agirre Berlinen izan zen bezala».

ETBren proposamena jaso zuenerako, baina, ibilbide oparoa egin zuen Oleagak. Besteak beste, “Sarah” (2001), “Amaren ideia” (2010), “Sitios prestados al aire” (2011) eta “Esperanza” (2012) dokumental eta fikzio lanak egin ditu. Berak zuzendutako film guztien gidoilaria da, eta, horrez gain, beste batzuen tzako gidoi ugari ere egin ditu.

BETIKO GAIA: IDENTITATEA

Maidarren lanak gai bertsuaren gainekoak dira beti, identitatearen gainekoak, hain zuzen. «Naziotasuna ez ezik, emakumea izatea ere, esate baterako, horixe da eta». Ikuspuntu feministak sekulako buelta ematen dio guztiari, eta horretaz nola konturatu zen gogoratu du.

2012an elikadura subiranotasunaren gaineko erreportaje bat egitera joan zen Boliviako inguru menditsu batera, hirietatik urrun. Han antzinako bizimodua topatu eta bertako indigena kitzuen gaineko erreportajea egin zuen. Ondoren, Esperanza topatu zuen, gaztelaniaz egiten ez zuen neskatala, eta film labur bat egitea erabaki zuen. Boliviatik itzultita, film hura egiteko grabatu zuen materialaren aurrean jarzteak gogoeta asko eragin zizkion, «galdera potoloak sortarazi zizkidan Boliviako esperientziak, kameraren botereaz, nire begirada etnozentrikoaz, emakume-

az...». Zazpi minutuko film laburra da; hala ere, ikaragarri kostatu omen zitzaion muntatzea. Boliviara itzultzea pentsatu zuen, emakume indigenen esperientziaz dokumental luzeago bat egiteko, eta, hartarako dosierra prestatzen ari zela, bere buruari galdetu omen zion: «Nor naiz ni hara joateko, hemen emakumea izateaz hausnartu gabe?».

Garai hartan Ikasketa Feministak masterra topatu zuen EHUn, eta oso interesgarria gertatu zitzaion; izan ere, hortik abiatuta emakumearen eta migrazioaren inguruko tesina bat egin zuen. «Azken batez, hor nire betiko gaiak agertu ziren: migrazioa, atzerritarrak, emakumea, identitatea. Errealitatearen irakurketa bat eman digute. Munduaren gaineko iritzi propioak izaten ditugu, baina beti gure kulturak eta hazi garen gizarteak baldintzatutak, eta hori zalantzan jartzea funtsezkoa da. Buruan ditugun dogma batzuk zalantzan jartzeko balio izan zidan master horrek, errealitatearen ikuspuntu desberdinak ikusi eta ulertzeko. Hausnarketa erruz egin behar dugu», dio benazki.

Gaztetatik zuen Mainerrek zinemarako grina, Hollywoodeko zinema klasikoarekin «liluraturata», aktorea izan nahi zuen, horregatik joan zen Iruñera Ikusentzunezko Komunikazioa ikastera. Telebista eta irratiko kazetaritzaz gainera, zinemari lotutako hainbat irakasgai zituen, eta, zinema aktoreak baino askoz gehiago dela ikusita, aktore izateko asmoa baztertzeko hasi zen.

Karrera bukatutakoan Madrilgo ECAM zine eta ikus-entzunezkoen eskolan zenbait proba egin eta hartu egin zuten. Bertan Zuzendaritza ikasi zuen. Ondoren, denboralditxo bat eman zuen Madrilen, baina «gogaitu» egin zen, «etapa bat erre nuen». Eta 2002an Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen. Lagunek burutik al zegoen galdetu omen zioten, zinema han egiten zela esanez. Eta, zer diren gauzak, luze gabe Koldo Zuazua ekoizleak deitu zion. «Oso ona da Zuazua», dio jarraitu baino lehen. Film bat ekoizten ari zen: «Euskal pilota. Larrua harriaren kon-



«Nor naiz ni? Nongoa naiz? Hemengoa, hangoa...?». Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

tra». Sekulako ilusioa eman zion ekoizle donostiarraren deiak. Denetarik egin zuen, hasieran elkarriketatzeko jendea bilatu –euskarazko elkarriketak berak egin zituen–, pertsonaien gaineko informazioa bildu, dokumentazio eta edizio lanak... Askok ikasi zuen, nahiz eta «gogorra ere» izan zen. «Gaia ez zen erraza». Eta Julio Medemen auzardia goraiatu du, «berak bazuen izen bat, prestigio bat zinemagile bezala; hala ere, egin behar zuela uste zuen».

Denboraldi bat ETBn gidoilari eman ostean, Mexikora joan zen, hilabetez. Eta hilabeteko egonaldia zazpi urtez luzatu zitzaion. Denetariko lanak egin zituen han: zuzendari laguntzaile, publizista, gidoilari edo *script doctor* (gidoiak irakurri eta balorazioa egin). Besteak beste, Mel Gibsonen «Apocalypse» filmean parte hartu zuen, zuzendari laguntzailearen taldean. Eta han zela berak film bat egiteko aukera iritsi zitzaion. Oso bitarteko gutxi bazituen ere, istorio bat

zuen, film bihurtu zuena: «Amaren ideia», Euskal Herritik Mexikora umetan eramandako bi emakume eta gizon baten lekukotasunak jasotzen dituen. «Nor naiz ni? Nongoa naiz, hemengoa, hangoa...?» bezalako gogoetak jorratzen ditu, Mainerrek berak urte haietan –«nire egoerak haienarekin zerikusirik ez zuen arren»– bere buruari egin izan zizkion galderak. Horregatik, uste du «Amaren ideia» identitate gatazka horrekiko identifikazioa dela.

ELBIRA ZIPITRIA

«Iragan gunea. Berlin» egitea proposatu ziotenean, duela lau bat urte hasitako proiektua utzi behar izan zuen, «IRA 26-2». Eta orain hari ekin behar dio betebeteen. Ira Elbira Zipitriaren izengoitia da, «26» haren etxeko atariaren zenbakia eta «2», bizi zen solairua.

Duela bospasei urte gidoilari lan bat eskaini zioten Donostian, eta, lagun baten laguntzaz, etxe bat topatu zuen, jabeek «konfiantzazko norbaiti» alokatu nahi

«Boliviako neskabila kitxua baten gaineko film laburra egiteak galdera potoloak sortarazi zizkidan: kameraren botereaz, nire begirada etnozentrikoaz, emakumeaz...»

«IRA 262» filma bilaketa baten emaitza izango da. Izan ere, Elbira Zipitria nor zen jakiteko bilaketa ez ezik, bilaketa zinematografikoa ere izango da, hori guztia nola kontatu asmatzeko

bat bakarrik: «Niri interesatzen zaidana pertsonak dira. Nor zen pertsona hura, zerk mugitzen zuen, zein ziren haren kezkek, minak... dena. Eta Elbira Zipitria, hasteko, emakumea zen». Ez dago haren gaineko informazio asko; beraz, ibilbide luzea egin du Mainerrek «haren aztarnak jarraitzen, aztarnak, hemen gauzatxo bat topatu eta hari tiraka, hor beste bat...».

Orain filma egiten hasiko da, baina ez omen daki zer-nolako filma izango den, bilaketa bat izaten jarraituko baitu. Elbira nor zen jakiteko bilaketa ez ezik, bilaketa zinematografikoa ere izango baita, hori guztia nola kontatu asmatzeko. «Eta gustatzen zait hori, zeren, orain, adibidez, Berlingo esperientzia asko gozatu dut film hori egiten, esplorazio bat zelako. Hara joan, bilatu, begiratu, beti gauzei sakonago begiratu, eta pentsatu nola grabatu».

Dokumentala ala fikzioa izango den galdetuta, «tarteko zer edo zer» erantzun du. «Ez da epokako filma izango. Niretzat fikzioaren eta dokumentalaren arteko mugak lausoak dira. Azken batean, egiazko pertsonaia baten inguruan berba egingo dut. Baina, aldi berean, hilda dago, eta memoriarekin jolastu behar dut, eta nire irudimenarekin, eta hor fikzioa sartzen da. Ez da fikziozko film ortodoxoa izango, baina ezta dokumental ortodoxoa ere». Ez du datarik finkatu, baina aurtien bukatzea espero du, filmazioa eta produkzioa bai behintzat. «IRA 26-2' lanarekin zerbait berezia sortu da, eta, grina hori desagertzen bada, filma desagertuko da, denbora gehiegi pasatzen bada».

Maidar Oleaga, aktore izan nahi zuen neskato hura, zinema zuzendari heldua da gaur egun. Kontalari aparta eta solaskide ezin atseginagoa. •

Xabier Izaga Gonzalez



Iratxe Esnaola
Hezkuntzan doktorea

Facebook, Google, Amazon...
finantza erakunde

Ez da asko hitz egin finantza sektorean dagoen nahasmenaren gainean. Bate-tik, azken urteotan ematen ari diren gertakariak eragindako iritzia aldaketa da-

go. Hipotekekin, preferenteekin eta etxegabetze aginduen kontuarekin, banketxeekiko gure pertzepzioa edo sentimendua aldatu da. Jada “toki ez seguru” gisa ikusten ditugu, eta, hortaz, bezeroa ez da lehen bezain fidela. Ez dago lehen bezain lotua. Horrek guztiak min handia egin dio finantza sektoreari. Baina, bestetik, bada horrek baino beldur gehiago ematen dien aldaketarik: finantza sektorearen transformazio digitala.

Internetekin, finantza erakundeekin dugun harremana aldatu egin da. Eragiketak edozein lekutatik egin daitezke. Eta sukurtsalak irekita daudenean ere, askok eta askok, transakzio elektronikoak egiten dituzte. Nabaria da ere gazteak ez direla sukurtsaletara gerturatzen. Gazteen segmentuarentzat arrotza den formatua dela sukurtsalarena. Egun ezagutzen dugun sukurtsalarena, bederen.

Horregatik, auzitan dago sukurtsalen egungo funtzioa, sukurtsal kantitatea eta egun duten ordutegia. Lehen ahalik eta sukurtsal gehien irekitzen ziren. Indar erakustaldi bat ere bazen. Orain asko soberan daude. Eta, bestetik, sukurtsalen ordutegia da, zenbait azterketen arabera, transakzio elektronikotara jotzeko arrazoi nagusietako bat. Hau da, sukurtsalak irekita dauden ordutegian ezin bertaratu ahal izatea. Eta horregatik, antza, ez dago urrun sukurtsalen ordutegiaren aldaketa. Ikusiko dugu.

Sukurtsalen funtzioa ere aldatu beharko da. Ziur aski, etorkizun hurbilean, sukurtsalak ez dira transakzio arruntak egiteko erabiliko. Bai, agian, transakzio handiak edo konplexuak egiteko. Edota aholkularitza zerbitzua eskaintzeko. Baina egun dituen funtzioetako asko testuinguru digitalean egingo dira. Eta horrek sukurtsalen funtzioa eta formatuen eraldaketa ekarriko du, halabeharrez.

Testuinguru digitalak, halere, ez dio zuzenki banku baten *on line* zerbitzuari erreferentzia egiten. Izan daiteke. Baina transformazio digitalarena, finantza erakunde berrien eskutik ere badator. Eta bidea jada argitzen hasi da. 2011tik, Google diru elektronikoko erakunde gisa onartua dago Estatu espainiarrean. 2012tik, Amazon. Eta 2016ko abenduaren 30etik, Facebook. Eta Estatu espainiarra da, gainera, Facebooken estrategiaren baitan, Europar lehenbizikoa (Ameriketako Estatu Batuetan duela urte eta erdi hasi zen zerbitzuok eskaintzen). Oraingo, partikularren arteko diru-trukaketak eta karitateko dohaintzak egitea ahalbidetuko du. Baina hau hasiera bat besterik ez da.

Oraindik ikusteke dago finantza sektorean agertzen ari diren agente teknologiko handi hauek, ohiko erakundeen lehiakide soil izango diren edota lankidetzarako agenteak izango diren. Hau da, ohiko bankuen lekua betetzeko es-

trategia osoak garatuko dituzten, edota hauen eskutik lan egingo duten. Agian, noizbait, Facebook Mailegua deituko zaion produktu bat eskainiko du Euskal Herriko banku pribaturen batek. Nork daki. Diru fisikoa ere, noiz arte erabiliko dugun, ezin da jakin.

Argi dagoena, gaur-gaurkoz, finantza sektorean ematen ari den mugimendua ez dela geldituko da. Eta Facebook, Google, Amazon eta Apple sektore horren bila doazela errealitatea da dagoeneko.

Hortaz, finantza sektorearen transformazio digitala jada martxan da. Oraindik nahasmena handia da eta galdera handienak erantzuteke daude. Baina egungo eta etorkizuneko bankak ezin dio digitalizazioari bizkar eman. Eta, hortaz, banka publiko eta solidarioaz hitz egiten dugunean ere, transformazio digitalaren begirada ezinbestekoa izango da. •



Gaur egun nabaria da gazteak ez direla sukurtsaletara gerturatzen. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA. ENRIQUE GUINEA. GUI-IV-047_085

LEKEITIO, BALEA ARRANTZAK TRADIZIO HANDIA IZAN ZUEN HERRIA

Lekeitioko balea arrantzaren lehen albisteak 1391. urtekoak dira. «Balaena biscayensis» delakoa harrapatzen zuten, Atlantikoaren iparreko muturretik euskal kostalderaino jaisten zena. 1517 eta 1662 bitartean Lekeitioko arrantzaleek 45 balea harrapatu zituzten. Euskal kostaldean, Orion harrapatu zuten azkena, 1901. urtean. XX. mendearen hasieran, Lekeitio ezarritako kontserba industriaren goraldia eta haren eskaria zirela eta, arrantza ontziak modernizatu egin ziren eta lehen baporeak eraiki zituzten. Lekeitioko portuaren irudia Enrique Guinea argazkilari dokumentalista gasteiztarrek egin zuen. Haren obra 10.000 argazki baino gehiagok osatzen dute eta gaur egun Gasteizko Udal Artxiboan dago.

GAUR8

ireki gure leihoo



7 0114

9